



LETREN  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE LETRAS



# **Ergatiboaren erabilera euskara-gaztelania kode-alternantzia: kasu-azterketa bat**

Master Amaierako Lana

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia Masterra

Endika Uriarte Orbañanos

[uriarte023@ikasle.ehu.eus](mailto:uriarte023@ikasle.ehu.eus)

Zuzendaria: Amaia Munarriz-Ibarrola

Saila: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak

Ikasturtea: 2022-2023

Gasteizen, 2023ko iraila

## Laburpena<sup>1</sup>

Euskararen ergatiboaren jabekuntza (Ezeizabarrena, 1996, 2012) eta helduen erabilera (Rodríguez-Ordoñez, 2020) eta prozesamendua (Zawiszewski *et al.*, 2011) aztertu duten hainbat ikerketa psikolinguistikok erakutsi dute ergatiboa euskal hiztunentzat —haur zein heldu— zail gertatzen den ezaugarri gramatikala dela. Azken urteetan fenomeno honen inguruko lanak ugari dira euskal psiko-soziolinguistikan (Ibarra, 2011; Lantto, 2015; Pérez, 2022), baina lan gutxi aztertu dute ergatiboaren erabilera KAn (kode-alternantzia) (euskara-frantseserako ikus Epelde eta Oyharçabal, 2017, 2020).

Master Amaierako Lan honen helburua da ergatiboaren eta KAren arteko harremanean sakontzea euskara-gaztelania elebidunen ebidentzia enpirikoa eskainiz. Horretarako, ergatiboaren erabilera ezohikoa duen eta lehen hizkuntza (H1) euskara duen hiztun heldu baten (Maria) kasu-azterketa egin da hurbilketa psiko-sozio-linguistikoa hartuta. Metodologiari dagokionez, bi metodo eta hiru ariketa konbinatu dira. Batetik, elkarrizketa glotobiografiko bat (cf. Kasares, 2014) egin zaio ahoz hiztunaren ibilbide linguistikoa ezagutzeko, eta ahozko ekoizpen datuak lortzeko. Bestetik, euskara hutsezko gramatikaltasun ariketa bat egin zaio (Mazkiaran 2022); hirugarrenik, euskara-gaztelania esaldien onargarritasun juzkuen ariketa bat, lan honetarako bereziki sortu dudana.

Emaitzek erakutsi dute kasu-azterketaren ekoizpenean ergatiboaren erabileran *ez-egitezko* hutsak nabarmentzen direla, eta huts horiek identifikatzeko zailtasuna duela. Huts horiek kualitatiboki zein kuantitatiboki H2 euskaldunen erabilerara hurbiltzen dira. Mariaren hizkuntza-ibilbidea aintzat hartuta, proposatzen dut Mariaren ergatiboaren erabilera hizkuntza-higaduraren ondorio izan daitekeela (Köpke & Schmid, 2004; Köpke, 2004), azken urteetako gaztelaniaren erabileragatik. KAdunetan, bestalde, kontroltaldeak hau erakutsi du: subjektuaren hizkuntzaren sistema morfologikoaren arabera da subjektu horrek hartzen duen marka morfologikoa subjektu eta predikatuaren arteko KAdun esaldietan.

---

<sup>1</sup> Lan honetan erabiliko diren laburdurak: (S)AO= subjektua-aditza-objektua, Subj.= subjektua, ABS=absolutiboa, ERG= ergatiboa, DAT= datiboa, H1= lehen hizkuntza, H2= bigarren hizkuntza, H2g= H2 goiztiarra, H2b= H2 berantiarra, OZ= osagarri zuzena, NOM= nominatiboa, ACC= akusatiboa, PST= iragana, Denbora= T, P= Pacient (jasailea), Masc= maskulinoa, Fem= femeninoa, SG= singularra, Igkor= iragankor, Igaitz= iragangaitz, DS= determinatzaile sintagma, KA= kode-alternantzia, IS= izen-sintagma

Ikerketa honek KA eta ergatiboaren arteko harremanean sakontzeko ebidentzia berria eskaintzen du; eta etorkizunera begira hainbat bide eta galdera berri planteatzen ditu euskal psiko-soziolinguistikarentzat.

**Gako hitzak:** Kode-alternantzia, ergatiboa, kasu-azterketa, euskara, onargarritasun juzkuak.

# AURKIBIDEA

1. Sarrera .....	5
2. Euskararen ergatiboa .....	6
2.1. Euskararen kasu-sistema .....	6
2.2. Ergatiboaren erabilera euskal haur zein helduengan .....	9
3. Kode-alternantziaren ikerketa.....	13
3.1. Hurbilketa soziolinguistikoak .....	15
3.2. Murriztapen gramatikalak.....	17
3.2.1. Subjektu/predikatuaren KAren murriztapenak.....	20
3.2.2. Ergatiboa euskaldunen KAn.....	21
4. Helburuak eta aurreikuspenak.....	22
5. Metodologia .....	24
5.1. Parte-hartzaileak.....	25
5.2. Ikerketaren diseinua .....	26
5.2.1. Elkarrizketa glotobiografikoa.....	26
5.2.2. Gramatikaltasun ariketa .....	26
5.2.3. Onargarritasun juzkuen ariketa.....	28
5.3. Prozedura.....	28
5.4. Datuen analisisa .....	28
6. Emaitzak .....	29
6.1. Elkarrizketa glotobiografikoa.....	29
6.1.1. Hizkuntzaren erabileraren narrazio biografikoa .....	29
6.1.2. Ergatiboaren azterketa ekoizpen erdiespontaneoan .....	33
6.2. Gramatikaltasun ariketa .....	35
6.3. Onargarritasun juzkuen ariketa.....	36
7. Eztabaida .....	40
8. Ondorioak eta aurrera begirakoak .....	44
9. Erreferentziak .....	46
10. Eranskinak.....	50

## 1. Sarrera<sup>2</sup>

Ergatiboa euskalaritzan gehien aztertu den ezaugarri gramatikaletako bat da (Laka, 1990, 2002; Salaburu, 1992; Dixon, 1994; Albizu, 2009); ondorioz, ergatiboa ikertzeko hainbat hurbilpen egin dira. Alde batetik, Ezeizabarrenak *et al.* (2009, 2012) euskara H1 duten hiztunen ergatiboaren jabekuntza ikertu dute, eta Huartek (2022) H2g eta H2b duten hiztunena ere. Bestetik, zuzentasuna eta erabilera ere aztertu da (Mazkiaran, 2022; Tardienta, 2021; Rodriguez-Ordoñezek, 2020). Horrezaz gain, ergatiboaren prozesamenduan ere aritu dira Zawiszewski *et al.* (2011). Denek frogatu dute ergatibo marka dela menperatzen gehien kostatzen den kasu-marka, eta ez bakarrik euskara bigarren hizkuntza moduan daukatenentzat, baita H1 moduan dutenentzat ere. Bestetik, KA ere azken urteotan psiko-soziolinguistikan arlo ikertuenetarikoa bilakatu da (Bullock & Toribio, 2009; Wei, 2013). Aldiz, gurera ekarriz, euskara-gaztelania KA apenas ikertu da, nahiz eta gaur egungo euskaldunengan kode-alternantzia erabilia izan. Bi arloak lotuz, ez da ezagutzen ergatiboaren eta KAren arteko harremana zein den. Hori dela eta, hizkuntza-ukipen fenomeno horretan ergatiboaren erabilera aztertzea interesgarria izan liteke ergatiboaren erabileran sakontzeko eta ergatiboa eta KAren arteko lotura zernolako den ezagutzeko.

Jarraituz, orain arte lan bitan aztertu da ergatiboaren erabilera KAn, hain zuzen, Epelde eta Oyharçabal (2017, 2020). Ikertzaile horiek euskara-frantsesa KA aztertu zuten, ergatiboaren erabilera aztertzeko, eta KAdun esaldietako murriztapen gramatikalak ezagutzeko ACOBA corpuseko adibide batzuetan oinarrituta. Alabaina, oraindik ez da ongi ezagutzen ergatiboaren erabilera nolako den KAdun esaldietan, eta ez dago azterketarik euskara-gaztelania elebidunen inguruan.

Hain zuzen, master amaierako lan honek hori du jomugan, ergatiboaren eta KAren erabileraren arteko harremana aztertzea. Horretarako, H1 euskara duen hiztun heldu baten kasu-ikerketak izango da abiapuntua. Hiztuna bereizgarria da euskara-gaztelania KA maiz egiteaz gain, ergatibo kasu-markaren higadura oso ohikoa duelako ahozko ekoizpenean. Hori dela eta, ebidentzia enpiriko interesgarria eskain dezake KA eta ergatiboaren arteko harremana ikertzeko. Lanaren hurbilketa psiko-sozio-linguistikoa izango da eta horretarako datuak biltzeko metodo bi baliatuko dira. Batetik, datu soziolinguistikoak

---

<sup>2</sup> Master amaierako lan honek Euskaltzaindiaren Mintzola proiektuko diru-laguntza jaso zuen 2023ko deialdian.

lortze aldera, elkarrizketa glotobiografiko bat egin zaio (ik. Kasares, 2014), haren hizkuntzen erabileraren narrazio biografikoa ezagutzeko. Bestetik, ergatibo eta kode-alternantziaren erabilera ere aztertuko da ekoizpen zein ulermenari erreparatuz. Ekoizpenerako, elkarrizketa glotobiografikoko hizketa erdiespontaneoaz aztertuko da, KA eta kasu-morfologian arreta jarritz. Ulermena aztertzeko, bi ariketa eginaraziko zaizkio. Alde batetik, euskara hutsezko esaldiak dituen gramatikaltasun ariketa bat ergatiboaren oharrena aztertzeko (Mazkieran, 2022); eta, bestetik, KAdun esaldien murriztapen gramatikalak hobeto ezagutzeko, ikerlan honetarako berariaz sortutako onargarritasun juzkuen ariketa bat eginaraziko zaio. Ariketa hori beste hamar hiztunek —gure hiztunaren adin eta hezkuntza maila aldetik bertsuak direnak— ere egingo dute, kontrol gisa.

Master amaierako lan honen egiturari dagokionez, jarraian aurrekari teorikoei ekingo diet; bi atal nagusitan: batetik, ergatiboa euskaldunengan aztertu duten lanei helduko diet, euskararen kasu-sistema deskribatuz (2.1. azpiatala) eta ergatiboaren erabilera euskaldunengan aztertu duten ikerketa psikolinguistikoen emaitza nagusiak aurkeztuz (2.2. atala). Bestetik, kode-alternantziaren inguruko ikerketez jardungo dut 3. atalean. Bereziki, literaturan jaso diren kode-alternantziarako arrazoi nagusiak ekarriko ditut (3.1. azpiatalean); ondoren, lan honetan jomugan izango ditugun subjektu-predikatu KAdun egituren inguruko murriztapen gramatikalak azalduko ditut (3.2. azpiatala) eta 3.3. azpiatalean ergatiboa eta KA euskaldunengan aztertu duten lanak ekarriko ditut. 4. atalean helburuak eta aurreikuspenak aurkeztu dira eta 5. atalean lanerako erabilitako metodologia aurkeztu da. Bertan deskribatuko ditut lan honetarako parte-hartzaileak (5.1.), ikerketaren diseinua (5.2.), prozedura (5.3) eta datuen analisia (5.4.). Ondoren, emaitzak aurkeztu dira 6. atalean hiru azpiataletan: elkarrizketa glotobiografikoan lortutako emaitzak (6.1.), euskara hutsezko gramatikaltasun ariketan lortutako emaitzak (6.2), eta azkenik, KAdun esaldien onargarritasun juzkuen emaitzak (6.3.). Bukatzeko, eztabaida eta ondorioak eskaini ditut 6. eta 7. ataletan, hurrenez hurren.

## **2. Euskararen ergatiboa**

Atal honetan euskararen kasu-sistemaren ezaugarri nagusiak aurkeztuko ditut lehenik, eta, ondoren, ergatiboaren erabilerari buruz egindako lan psikolinguistikoko nagusien emaitzak.

### **2.1. Euskararen kasu-sistema**

Kasu-sistema da gertakarietan parte hartzen duten argumentuak morfologikoki markatzeko modu bat. Bi kasu-sistema daude hizkuntzen artean: nominatibo-akusatiboa

eta ergatibo-absolutiboa (Dixon, 1994). Nominatibo-akusatiboaren adibide bat ingelesa da, aditz iragankorreko subjektuari (A) (1a) eta aditz iragangaitzeko subjektuari (S) (1b), kasu bera egozten zaizkielako. Ergatibo-absolutiboetan, aldiz, euskara da horien adibideetako bat; izan ere, aditz iragankorreko objektuaren (P) (2a) eta aditz iragangaitzeko subjektuaren (2b) kasuak bat egiten dute (Dixon, 1994).

(1) a. *He* *saw* *her*  
 hura 3SG Masc-NOM ikusi-PST hura 3SG Fem-ACC

b. *She* *fell*  
 hura 3SG Fem-NOM erori-PST

(2) a. *Mikel-ek* *Peio-Ø* *ikusi du*  
 Mikel-ERG Peio-ABS ikusi du

b. *Mikel-Ø* *etorri da*  
 Mikel-ABS etorri da

Kasu-sistemaz gain, aditz-komunztaduran ere adierazgarria da ergatiboaren markapena. Aditz-komunztaduran perpausean agertzen diren argumentu guztiak islatu behar dira, esaterako (3) adibidean hiru argumentu daude: ergatiboa (*Nik*), datiboa (*Peiori*) eta osagarri zuzena (*liburuak*). Hiru argumentu horiek aditz-morfologiarekin komunztatzen dute, hau da, ergatiboa subjektu komunztadurari dagokio *-t* lehen pertsona singularreko atzizkia; bigarrenik, *-zki-* osagarri zuzenaren numero komunztadura da; eta azkenik, *-o-* datiboari erreferentzia egiten dion hirugarren pertsona singularreko atzizkia dago. Beraz, “baldin eta aditz intrantsitiboko eta aditz trantsitiboko subjektuei komunztadura marka diferenteak egozten bazaizkie, eta aditz intrantsitiboko subjektuari ezartzen zaiona osagarriari ezartzen zaion bera bada, orduan, aditz-komunztadurak sistema ergatiboa erakutsiko du” (Fernández eta Laka, 2021, 20. or.). Argiago egite aldera, har ditzagun adibide hauek (4), (5), (6).

(3) *Nik* *Peiori* *liburuak* *ekarri dizkiot*

(4) **Zu** *Bilbora* *joan zara*

(5) **Zuk** *Peio* *ikusi duzu*

(6) *Nik* **zu** *ikusi zaitut*

*Zu* pertsona izenordainak (4) esaldian subjektu funtzioa dauka, absolutibo kasu-marka du eta aditz laguntzaileko *z-* aurrizkiaren bidez komunztatzen du. Hurrengo esaldian (5) *zuk* subjektu funtzioa du, baina oraingoan ergatibo kasu-marka dauka eta *-zu* atzizkiaren bitartez komunztatzen du. Hirugarrenik, (6) esaldiari begiraturaz gero, *zu*

osagarri funtzioa du, absolutibo kasua da eta aditz laguntzaileko *z*-aurrizkiaren bitartez komunztatzen du (Fernández eta Laka, 2021).

Gauzak horrela, euskararen kasu-sistema ERG-ABS dela esan daiteke (Dixon, 1994; Ortiz de Urbina, 1989), nahiz eta hori autore batzuek zalantzan jarri (Holmer, 1999; Albizu, 2009). Kasu-sistema hori egotzi zaio euskarari subjektu iragankor eta iragangaitzak bereizten dituelako eta aditz iragankorreko objektuek (7) eta aditz iragangaitzeko subjektuek (8) kasu-marka bera hartzen dutelako, absolutiboa alegia.

(7) *Mikel-ek Peio-∅ ikusi du.*  
Mikel-ERG Peio-ABS ikusi du

(8) *Mikel-∅ etorri da.*  
Mikel-ABS etorri da

Euskararen lau kasu gramatikal daude, baina alokutiboa ez denez argumentala ez dut aztertuko; hortaz, hiru kasu argumental daude: ergatiboa, absolutiboa eta datiboa. Ergatiboari dagokionez, aditz iragankor (9) eta inergatiboekin (10) *(-e)k* marka jasotzen du subjektuak.

(9) *Endika-k Iñigo-ri autoa lapurtu dio.*  
Endika-ERG Iñigo-DAT autoa-ABS lapurtu dio.

(10) *Ane-k korrika egin du.*  
Ane-ERG korrika egin du.

Bigarrenik, absolutiboaren kasua dago (*-∅*). Kasu hau ezartzen zaio aditz iragangaitzen subjektuari (11), aditz iragankor (12) eta ditransitiboekin (13) OZ-ri edota datiboa eskatzen duten aditzetan dagokion argumentuari (14) (Fernández eta Laka, 2021).

(11) *Endika-∅ etorri da.*  
Endika-ABS etorri da.

(12) *Endika-k liburua-∅ irakurri du.*  
Endika-ERG liburua-ABS irakurri du.

(13) *Mikel-ek Ane-ri pelota-∅ eman dio.*  
Mikel-ERG Ane-DAT pelota-ABS eman dio.

(14) *Ane-ri arkatza-∅ erori zaio.*  
Ane-DAT arkatza-ABS erori zaio.



Datiboari dagokionez, *(-r)i* aditz ditransitiboetan osagarri zuzena (OZ) ere izan daiteke (15<sup>3</sup>) eta bi argumentuzko adizkietan (ABS-DAT) ere badu agertzea (16).

(15) *Ane-k zu-ri oinutsik ikusi dizu.*  
Ane-ERG zu-DAT oinutsik ikusi dizu.

(16) *Mikel niri joan zait.*  
Mikel-ABS ni-DAT joan zait.

Halaber, hain aztertua den ergatibotasuna ez zen 1912ra arte gramatikaren terminoen barruan sartu, nahiz eta hizkuntza ergatiboak askoz lehenagotik egon. Hizkuntza ergatiboak munduko kontinente guztietan daude —Kaukaso inguruan European baino gehiago— (Dixon, 1994), baina horrek ez du esan nahi hizkuntza hauen artean harreman genetikorik dagoenik (Laka, 2002). Hizkuntza bat ergatiboa izateak ez du esan nahi morfologia mailan eta sintaxia mailan izan behar duenik ergatiboa, hots, bailiteke maila bietako batean bakarrik izatea ergatibitate tasunak. Salaburuk (1992) aipatzen duen moduan (*split ergativity*) ergatibitate hautsia<sup>4</sup> gerta baitaiteke.

## 2.2. Ergatiboaren erabilera euskal haur zein helduengan

Euskal psikolinguistikan ergatiboa izan da gehien aztertu den ezaugarri gramatikaletako bat bai jabekuntzan (Ezeizabarrena *et al.*, 2009, 2012; Ezeizabarrena eta Larrañaga, 1996; Huarte, 2022), bai prozesamenduan (Zawiszewski *et al.*, 2011), bai erabileran (Tardienta, 2021; Mazkiaran, 2022; Rodríguez-Ordoñez, 2020). Oro har, ikerketa horiek ebidentzia enpirikoa eskaini dute ergatiboaren kasu-marka ezaugarri gramatikal zaugarria delakoaren alde.

Haurren kasu-markaketaren jabekuntzaren hurrenkera hauxe da: ABS >ERG>DAT (Huarte, 2022). Baina ergatiboaren kasu-marka datiboarena baino lehenago gertatzen bada ere, denbora gehiago behar da sistematikoki erabiltzeko eta egonkortzeko, bai H1

---

<sup>3</sup> Nahiz eta forma dialektala izan.

<sup>4</sup> Lanaren helburuetako bat ez denez, laburki azalduko dut. Euskaraz perpaus iragankorretako objektua 3p denean eta adizkia iraganean bada, ergatibitatea hautsi egiten da; izan ere, iragankorretako subjektuek eta iragangaitzetako subjektuek marka berdina dute. Beraz, kasu-marketan ergatibitatea ikusten bada ere, morfologian ergatibitatea ez da beti betetzen, eta hautsia gelditzen da (SEG, 2022). Hots, iraganeko adizkietan P (Pacient) 1<sup>o</sup> edo 2<sup>o</sup> p. bada, ergatibo kasua agertuko da lehen tokian, baina 3p bada, ez du inolako ergatibotasunik erakusten, hiru argumentuek marka berbera hartzen dutelako (Ezeizabarrena & Larrañaga, 1996; Salaburu, 1992). Ikusi adibidez:

- (a) Ni etorri N-intzen (igaitz)
- (b) Nik ikusi N-uen (igkor)
- (c) Anek ikusi N-induen (igkor)

hiztunengan eta are gehiago H2 hiztunengan. Halaber, Huartek (2022) eta Ezeizabarrenak *et al.* (2009) diote posible dela haurren kasu-markaketaren jabekuntzaren hurrenkera hori behin betikoa ez izatea eta ABS>DAT>ERG ere gertatzea. Beraz, baliteke ergatiboa izatea ekoizten hasten den azken marka. Era berean, ergatiboa da akats gehien erakusten duen kasua. Hori dela eta, ekoizten hasten diren alditik “espero den testuinguru guztietan behar bezala ekoizteko (% 90etik gora), urte erditik gora itxaron beharra dago” (Ezeizabarrena *et al.*, 2009, 652. or.). Ezeizabarrenak (2012) ergatiboa zuzen erabiltzen ikasten ari diren aro honi *Ergatiboaren Hautazko Aldia (Ergative Optional Stage)* deitzen dio, eta ohikoena aldi honetan da *ez-egitezko* hutsak ekoiztea, hala nola (17a) eta (17b) (Huarte, 2022). Hau ez da H2 edo H2g euskara dutenengan bakarrik gertatzen, baita H1 euskara dutenengan ere. Hortaz, ez da harritzekoa ergatibo marka espero den testuinguruan zero marka agertzea, hau da, ergatiboaren isiltzea gertatzea.

(17) a. *Erregea eman zion (...)* diru guztia (xede subjektua: Erregeak)

b. Esan zuen Mattin *Zaku* (xede subjektua: Zakuk)

(Ezeizabarrena, 2012, 313. or.)

Kasu-morfologian gutxien ageri diren hutsak *egitezko* hutsak dira, hots, ergatiboaren marka behar ez den absolutibo testuinguruan erabiltzea, oso urriak dira (Ezeizabarrena, 2012; Huarte, 2022). Izan ere, errazagoa baita ergatiboaren marka joan behar litzatekeen tokian kasu-marka ez erabiltzea, hau da, ergatiboa *ez-egitea* edo isiltzea. Bi huts horiek informazioa eman diezagukete haurren jabekuntzaren inguruan. Esaterako, era sistematiko batean *egitezko* hutsak baldin badaude, pentsa daiteke haurrak ezaugarri morfosintaktiko konkretu hori ez duela behar den moduan bereganatu. Bestalde, *ez-egitezko* hutsak badaude, ondoriozta liteke haur horrek behar bada oraindik ergatibo marka ez duela barneratu, edo barneratu duela baina ez duela ongi bereizten zein testuingurutan erabili behar duen (Huarte, 2022).

Haur euskaldunen hizkuntzaren garapena aztertu duten hainbat lanek aurkitu dute (Ezeizabarrena *et al.*, 2009, 2012), asimetria bat dagoela ergatiboa markatzeko kasu-sistemaren eta aditz-komunztaduraren erabileraren artean. Izan ere, lortutako datuek erakutsi dute izen sintagmetako kasu-sistemaren ekoizpena bereziki ergatiboarena arazotsuagoa dela, aditz-komunztaduran ageri diren ergatibo komunztadura morfemak baino. Alegia, ergatiboaren komunztadura morfemak lehenago egonkortzen dira, eta akats gutxiago ageri dira (Ezeizabarrena *et al.*, 2009).

Ergatiboaren jabekuntzan, Ezeizabarrenak (2012) euskara H1 eta H2 duten ume txikien (2;6 inguru) ikerketa egin zuen eta ondorioztatu zuen 0 eta 2-3 urteen artean ez dagoela ezberdintasun nabarmenik ergatiboaren jabekuntzan eta ulermenean, nahiz eta H1ekoak *input* denbora gehiago izan. Bestalde, erakutsi da H2 berantiarrek (H2b) duten ekoizpenaren zuzentasuna hizkuntza heldutan bereganatu dutenengandik hurbilago dagoela H2g edo H1 dutenengandik baino (Meisel, 2007, *apud.* Ezeizabarrena, *et al.*, 2009).

Huarte (2022) azpimarratzen du H1dunen kasu gramatikalen jabekuntza prozesua azkarragoa eta zuzenagoa (% 9 vs. % 18) dela H2 euskara dutenena baino. Absolutiboarekin ez dago ezberdintasunik, baina ergatiboa eta datiboarekin erabilera zuzenak *ez-egitezko* hutsarekin trukutzen dira H2dunen kasuan. Datiboaren jabekuntza eta zuzentasuna, talde biei oro har, errazagoa egiten zaie ergatiboarena baino. Zehatzago, H1dunak % 90eko zuzentasuna daukate ergatiboaren kasuan; H2dunak, ordea, % 19koa. H1 euskara dutenak % 9ko *ez-egitezko* hutsak dituzte —Huarteren (2022) ustetan aditzera ematen du hurrek ez zutelako testua birpasatzeko aukerarik izan ezta idatzi aurretik planifikatzeko denborarik ere— ;H2dunak, berriz, % 81. Datiboaren kasuan, H1 euskara dutenak % 100eko zuzentasuna dute, H2dunak % 91,6, ordea. *Ez-egitezko* hutsetan, berriz, H1dunak % 0 eta H2dunak % 8,4 (Huarte, 2022).

Duguine eta Köpkek (2019) nabarmentzen dute ergatiboaren jabekuntza prozesua elebidunetan motelagoa dela elebakarretan baino; hori dela eta, akats gehiago egiteko aukera dago elebidunetan. Duguine eta Köpkek (2019) erakutsi zuten elebakarrak lehenago hasten zirela ekoizten ergatiboaren kasua euskara-frantsesa elebidunak baino. Horrezaz gain, elebidunak ziren ergatiboaren marka subjektuan isiltzen zutenak —ez sistematikoki, baina gehiagotan bai— eta erabiltzen zuten hurrenkera SAO zen, hau da, frantsesaren hurrenkera. Aldiz, elebidunek aditz-komuntaduran ez zuten inolako arazorik izan. Hori dela eta, esan daiteke, elebidunentzat aditzean agertzen den ergatiboaren markak informazio-balio handiagoa duela DStan eta izenordainetan atxikitzen den ergatibo marka baino, DStan eta izenordainetan askotan isildu egiten duten kasu-marka baita (Duguine eta Köpke, 2019).

Aditz-komuntaduraren jabekuntzari dagokionez, egiaztatu da bai elebakarrek eta bai elebidunek lehen hiruzpalau urteetan gai direla esaldian agertzen diren argumentuekin adizkiak (irangaitzak, iragankorrak edota ditransitiboak) ia gehienetan zuzen komuntatzeko (Ezeizabarrena *et al.*, 2009).

Ezeizabarrenak eta Larrañagak (1996) ergatiboaren markaren jabeakuntza eta horren erabilera zuzena eza leporatzen diote euskararen eta gaztelaniaren arteko bi subjektu moten —ergatibo-absolutibo— arau eta murriztapen ezberdinei eta horien jabeakuntza gradualari.

Euskal esaldien prozesamendua aztertzean ere Zawiszewski-k *et al.* (2011) frogatu zuten euskara H1 zutenen eta gaitasun handia zuten H2 elebidun goiztiarren artean ezberdintasunak zeudela ergatibo kasu-markari dagokionez. Esaldi gramatikalen kasuan bi taldeek erantzun zuten espero zen moduan (N400 eta P600); baina gramatikalak ez ziren kasu-markak zituzten esaldietan, ez-natiboek natiboek baino denbora gehiago behar izan zuten agramatikaltasun hori identifikatzeko (300-600 ms vs 300-500 ms), eta akats gehiago egin zituzten. Horrez gain, ez-natiboek ergatibo testuinguruetan absolutibo marka zegoenean ez zuten P600 lortzen. (Zawiszewski *et al.*, 2011).

Rodríguez-Ordoñez-ek (2020) euskaraz gaitasun maila desberdina zuten heldu hiztun berrien ahozko ekoizpena aztertuta ere, ergatibo kasu-markaren zailtasunaren ebidentziak aurkitu zituen. Euskaraz hizkuntza gaitasun ertaina zuten H2 hiztunek, erakutsi zuten ez zutela natiboek besteko zuzentasuna ergatiboaren markaren erabileran, hots, nabarmen gehiago isiltzen zuten (% 50-65 vs. % 80-90). Hiztun berrien edo euskaldun berrien ekoizpenean ere aztertu zuen ergatiboaren erabilera Rodríguez-Ordoñezek (2020); eta horretarako, H1 euskaradunak, 2Hg-dunak, maila aurreratudunak eta maila ertaindunak behatu zituen. Ondorioztatu zuen H1eko hiztunek ez zutela arazorik izan ergatiboa edo absolutiboa aditz iragankor, inakusatibo eta inergatiboetan zuzentasunez erabiltzeko. Gaitasun handiko H2g taldekoek, aldiz, akats gutxi batzuk egin zituztela aipatzen du autoreak. Gaitasun ertaineko H2g hiztunek, ordea, zailtasunak izan zituzten inergatibo eta inakusatiboaren artean ezberdintzen, biak zero markarekin (Ø) markatzen zituztelako. Inakusatiboaren kasuan egia da, orokorrean, ez zutela ergatibo marka jartzen, hau da, errazagoa dela ergatiboaren edo inergatiboaren kasuan kasu-markarik ez jartzea, inakusatiboetan ergatiboa jartzea baino; hortaz, hiperzuzenketa horiek ez dira ohikoak Rodríguez-Ordoñezen (2020) arabera.

Ergatiboaren erabilera nerabe elebidunen artean ere ikertu da (Tardienta, 2021; Mazkieran, 2022). Mazkieranek (2022) ikusi nahi zuen profil ezberdina duten euskara-gaztelania elebidunengan ergatibotasunaren eta beste kasu gramatikalen oharmena nolakoa zen. Juzkuen ariketa batean oinarrituta, ondorioztatu zuen nerabeei ergatiboaren kasua zela arazo gehien ematen ziena, bereziki H2dunei, eta horien artean H2 berantiarrei H2 goiztiarrei baino gehiago. Interesgarria den beste puntu bat ere mahaigaineratu zuten

Mazkiaranek (2022) eta Tardientak (2021): familian edo lagunartean euskara erabiltzen dutenek askoz ere akats gutxiago egin zituzten gaztelania erabiltzen dutenek baino. Gainera, hezkuntza-ereduak ere pisua duela erakutsi zuten lan horiek; izan ere, Mazkiaranek (2022) frogatu zuen D ereduko ikasleek kasu-marken urratzeak juzkuen ariketetan onargarritasun hobe zutela A eredukoek baino. Tardientak (2021), ordea, galdetegi bat eta elkarrizketak egin zituen hiztun profil ezberdinen arteko ezberdintasunak ateratzeko. Profilak bi taldetan banatu zituen: batetik, euskaraz mintzatzen diren euskaldunak; eta bestetik, etxetik erdaldunak direnak eta ondoren euskara ikasi dutenak. Ondorioztatu zuen, xehetasunetan sartu gabe, euskaraz hitz egiten zutenez akats gutxiago egin zituztela ekoizpenean.

Ergatiboaren ekoizpenari buruzko lanen ildotik jarraituz, Ezeizabarrenak (2012) erakutsi zuen ekoizpenean 5-8 urterekin H1 eta H2g taldeen arteko aldeak nabarmenak eta esanguratsuak zirela.

Laburbilduz, psikolinguistikako lanek erakutsi dute kasu-sistemaren eta aditz-komunztaduraren artean asimetria bat dagoela. Izan ere, arinago eta zuzenago agertzen dira aditz-komunztadura morfemak ergatibo kasu-markak baino. Prozesamendua eta erabilera helduengan aztertu dutenek ere kasu-markak ekoizteko eta kasu-marketako akatsak identifikatzeko zailtasunak aurkitu zituzten H2 goiztiar zein berantiarrengan. Oro har, ergatiboari lotutako akats ohikoenak *ez-egitezkoak* dira, hau da, ergatibo marka isiltzea; *egitezko* hutsak, ordea, oso urriak dira, nahiz eta Mazkiaranen (2022) lanean horren adibide gutxi batzuk egon (Huarte, 2022).

### 3. Kode-alternantziaren ikerketa

Kode-alternantzia (KA)<sup>5</sup> esaldi edo diskurtso batean hizkuntza batetik beste batera salto egiteari deritzo (Poplack, 1980; MacSwan, 2007). Ingelesezko *code* hitza teknologia eremutik mailegatua da eta hizkuntzen edo aldaeren arteko ezberdintasuna adierazten du. *Switching* hitzak, aldiz, bi hizkuntza edo aldaeren arteko txandakatzeari egiten dio erreferentzia. Hizkuntza-txandakatzeaz ari garenean, *code-mixing* terminoa ere erabiltzen da, baina ezin da KAekin nahastu; izan ere, *mixing* hitzak nolabaiteko araurik gabeko hizketaldiaren zentzua atxikita darama (Bullock eta Toribio, 2009). KA, ordea, arau eta

---

<sup>5</sup> Ingelesezko *code-switching* terminoa euskaratzeko proposatu den terminoetako bat da, *hizkuntza lerratzea* (Epelde eta Oyharçabal, 2010) edo *kode txandaketa* (Gaztelu eta Zulaika, 2016) bezala. Lan honetan *kode-alternantzia* (KA) terminoa erabiliko da

murriztapen gramatikal batzuei jarraitzen dien fenomenoa da, geroago azalduko denez, alegia, ez da inolaz ere araurik gabeko alternantzia<sup>6</sup>.

Gizartean nahiko hedatuta dago KA hizkuntzaren erabilera okertzat hartzea, eta hainbat hiztunek uste du KA erabiliz gero, nolabaiteko bigarren mailako efektuak izango dituela etorkizunean hizkuntzarekiko ekoizpenean (Bolonyai, 2009). Horri lotuta, elebidunen gaitasun faltaren adierazgarritzat ere hartu izan da, hein batean elebitasunaren inguruan garai batean zeuden estigmei lotuta (Bullock eta Toribio, 2009; Garcia, 1989; Congdon, 1980). Dena dela, hizkuntzalariek aspalditik elebidunek duten gaitasun maila altuaren erakusgarri dela diote (Bullock & Toribio, 2009). Eta ildo horretatik, hain zuzen, autore batzuek gaitasun eta elebidun profilari lotutako bestelako ñabardurak ere gehitzen dituzte KA definitzerakoan. Horren adibide da Lópezen (2020) definizioa: KA hiztun elebidun goiztiar batek jariakortasunez bi hizkuntzetako material linguistikoak hizketa batean integratzea.

KAren ikerketan hiru hurbilketa nagusi daude (Bullock & Toribio, 2009): hurbilketa gramatikal edo estrukturala (*structural approach*), non KA egituren ezaugarri eta murriztapen gramatikalak aztertzen diren, hots, lexikoa, fonologia, morfologia, sintaxia eta semantika; hurbilketa psikolinguistikoa (*psycholinguistic approach*), non hiztunaren ekoizpen eleaniztuna eta haren zergatia ulertzeko mekanismo kognitiboak ikertzen dituen; eta azkenik, hurbilketa soziolinguistikoa (*sociolinguistic approach*), non hiztunaren testuingurua aztertu eta haren KA egiteko arrazoiak edo zergatiak (sozialak, linguistikoak...) ikertzen dituen.

KAren inguruko lehen lanetatik aztertu da KA-dun esaldien egitura linguistikoak zer-nolakoak diren; hain zuzen ere, Poplackek (1980) hiru motatako egiturak identifikatu zituen<sup>7</sup>: *inter-sentential* delakoak (18), hau da, perpausen arteko alternantzia; bigarrena, *intra-sentential* delakoa (19), hots, perpaus barruan alternantziak gertatzea; eta azkena, *tag-switching* delakoak (20), diskurtso markatzaileen, ahozko adierazpen ezagunen eta hitz-jokoen kasuan erabiltzen dira (Poplack, 1980). Gainera, kode-alternantzia mota horiek hiztun-profilen arabera zirela ikusi zuen. Izan ere, *tag-switching* motakoak normalean ez zituzten elebidunek egiten, bai ordea KAn gaztelania hizkuntza matrizea zeukatenak eta H2ren (ingelesaren) oinarriko gramatika bakarrik zekitenek. *Inter-*

---

<sup>6</sup> *Code mixing*-aren erabilerearen inguruan beste proposamen batzuk ere egin dira, ikus Muysken (2000)

<sup>7</sup> Bestelako proposamen batzuk ere egin dira egitura mota orokorretarako, horren adibide da Muyskenen (2000) *alternation*, *insertion* eta *congruent lexicalization* sailkapena. Lan honen helburuetatik kanpo gelditzen denez, ez dugu bestelako sailkapenetan sakonduko.

*sentential* motakoak egiteko, H2aren gramatikaren ezagutza aurreko taldearena baino sakonagoa izatea eskatzen zen; beraz, hau ekoizten zuten hiztunen profila normalean KA gehiago praktikatzen zutenena izaten zen. Eta *intra-sentential* egiturak egiten zituztenak bi hizkuntzen gramatikak menperatzen zituzten esaldi ez gramatikalak sor ez zitezen; beraz, elebidunak ziren eta normalean 2H1 moduan gaztelania eta ingelesa izan zutenak ziren edota institutuan graduatu zirenak (Poplack, 1980):

(18)<sup>8</sup> Si tú eres puertorriqueño, *your father's a Puerto Rican* (594. or.).

(19) Siempre está *promising* cosas (596. or.).

(20) Mi mai tuvo que ir a firmar y *shit* pa' sacarme, *you know* (600. or.).

### 3.1. Hurbilketa soziolinguistikoak

Gardner-Chlorosek (2009) dioenez, KA ikuspegi soziolinguistikotik aztertzea ere garrantzitsua da; izan ere, hiztunaren identitatea, hizkuntzarekiko jarrera, edota hiztunaren bizitzako aspektu anitz kontuan hartu beharrekoak direlako haren KA egiteko arrazoiak ulertzeko. Soziolinguistikako azterketek erakutsi dute honako hiru ezaugarri hauek aintzat hartu behar direla KAn eragina baitute: batetik, hiztunaren faktore pertsonalen zein aldaerak erabiltzen diren egoera jakinen menpe ez dauden faktoreak, komunitate jakin batean dauden hiztun guztiei eragiten dietenak, hala nola prestigioa, botere-harremanak, eta abar. Bigarrena, hiztunei eurei lotutako faktoreak, bai norbanako gisa bai hainbat azpitaldetako kide gisa: hiztunak duen hizkuntza-gaitasuna, euren harreman eta sare sozialak, euren jarrera eta ideologiak eta abar. Hirugarrena eta azkena, KA gertatzen den elkarrizketei dagozkien faktoreak. Hain zuzen, KA elkarrizketetako baliabide garrantzitsua da, elebkarrek diskurtsoa egituratzeko dituzten tresnei gehitzen zaie (Gardner-Chloros, 2009).

Hiztunei lotutako faktoreei dagokienez, iritzi ezberdinak ageri dira literaturan hiztunen gaitasunaz aritzean. Zentellak (1997) New Yorken bizi ziren Puerto Ricoko haurren (6-11 urtekoak) KAdun ekoizpenak aztertuta ondorioztatu zuen eta konturatu zen KA horren % 14tan bakarrik zela zailtasunagatik, hau da, hitza nola esan ez gogoratzeagatik edo ez jakiteagatik. KA erabiltzeko bestelako arrazoiak ziren ideiak azpimarratzeko, argibideak emateko edota beste pertsona baten hitzak zirela markatzeko. Antzeko ikuspegia dute Poplack (1980), Chan (2009) eta Bullock eta Toribio (2009) ikertzaileek ere. Euren ustez, hiztunak jariaortasunez KA egiteko, gaitasun maila altua izan behar du hizkuntza bietan. Era berean, nolabaiteko bateragarritasun linguistiko bat

---

<sup>8</sup> Lan osoan zehar kode-alternantzia dagoen esaldietan letra etzana erabiliko da bi hizkuntzak bereizteko

egon beharko da bi hizkuntzen artean; bestela, ez da gutxieneko onargarritasun mailara iritsiko, eta solaskideak zailtasunak izan ditzake ulertzeko.

Aldiz, beste ikertzaile batzuen ustez (Cook, 2003; Hughes *et al.*, 2006) hiztunak hizkuntza batetik bestera aldatzeko arrazoia da hizkuntza batean bakarrik jarraitzeko zailtasunak dituelako, eta zailtasun horiek ekiditeko edota konpontzeko, gaitasun gehien duen hizkuntzara jotzen duela.

Gaitasunaren faktoreari lotuta, zenbait ikertzailek KA hizkuntza-higaduraren (*language attrition*) adierazgarri izan daitekeela proposatu da (Turian eta Altenberg, 1991; Du Bois, 2012; Halmari, 1993a). Hizkuntza-higadura hiztun batek jabetzen duen hizkuntzaren higadura ez patologikoa da (Köpke eta Schmid, 2004). Hain zuzen, Bolonyaik dioenez (2009, 255. or.) “denboraldi batez edo iraunkorki pertsonengan gertatzen den erabileraren, jakintzaren edo hizkuntza gaitasunen gainbehera edo dekadentzia da”, eta H2aren erabilera areagotzearen ondorio izaten da (Gallo *et al.*, 2021).

Euskal elebidunen inguruko lanetan ere gaitasuna faktore gisa agertu izan da gehiago edo gutxiago, askotariko elebidun profila duten euskal elebidunengan oso zabaldua egon arren (Amorrortu *et al.*, 2019; Lantto, 2015; Pérez, 2022). Ibarrek (2011) berak KA erabiltzeko arrazoen artean euskaldunek euskaraz zuten gaitasuna aipatu zuen. Berriki Pérezek (2022) 244 gazteren (18-30) KAren erabilera eta jarrerak aztertu zituen online galdetegi batean oinarrituta. Pérezek ondorioztatu zuen, H1 eta ingurune soziolinguistikoa gorabehera gazte gehienek erabiltzen zutela KA. Edozein kasutan frogatu zuen hizkuntza-gaitasunak eragina zuela KAren erabileran, hau da, euskara hutsean aritzeko zailtasuna zutela adierazi zutenek KA gehiago erabiltzen zutela ikusi zuen. Horrekin lotuta, Amorrortuk *et al.* (2019) adierazi zuten euskaldunek euren hizkuntza-gaitasunari buruzko duten iritzia positiboa ez bada, gaztelania makulu moduan erabiltzeko aukera handiak egon daitezkeela, “konfiantza falta duten partaideen kasuan bereziki” (Amorrortuk *et al.*, 2019, 57. or.). Gainera, “gaztelaniatik euskarara pasatzea ‘natural’ atzematen den bitartean, alderantzizko joera bortxatu bezala ikusten da, ez natural” (Amorrortuk *et al.*, 2019, 56. or.).

Hein handi batean, emaitza horiek azaltzen dituzte euskaldunengan KAren inguruan ageri diren aurreiritzi edo uste batzuk. Hain zuzen, Amorrortuk *et al.* (2016) eta Lanttok (2018) jaso zituzten euskaldunen pertzepzioak. KA ez zen berdin ikusten ekoiztu zuena H1 euskalduna izan edo euskara beranduago ikasi duen H2 euskalduna izan. H1 hiztunen kasuan, arrazoi estilistikoak aipatzen zituzten KAren erabilera azaltzeko, hots



informalago egiteko, aldiz, H2dunen kasuan, gaitasun-falta zen aipatzen zen arrazoi nagusia.

Bestalde, KA gertatzen diren elkarrizketei dagozkien faktoreen artean, KAraiko hiru funtzio nagusi aipatzen ditu Gardner-Chlorosek (2009): batetik, umorea egiteko intonazio ironikoak edo imitazioa lortzeko KA ekoiztea; bigarrenik, harreman estua dela adierazteko, hau da, H1era aldatu kodea lagunartekoagoa egiteko edo gaia behintzat lagunartekoa delako. Eta hirugarrenik, bi hiztunen arteko elkarrizketan gutxieneko ulergarritasuna lortze aldera, hau da, KA gertatzen da elkarrizketak jarrai dezan, bietako batek ez duelako menperatzen hizkuntzetako bat. Treffers-Dallerren (2009) ustetan ia ezinezkoa da KA gertatzen den aldi bakoitzean zergatia edo arrazoia zehaztea, baina Bullock eta Toribiok (2009) arrazoi posible batzuk planteatzen dituzte: hutsune linguistikoak betetzeko, hau da, zailtasunak izateagatik hizkuntza batean beste batera salto egitea; identitate etnikoa adierazteko, hots, gertutasuna erakusten duen edo identitarioa den hizkuntza erabiltzea; eta helburu diskurtsibo batzuk lortzeko, hala nola bi hiztun elkar ulertzeko.

Euskaldunen kasuan Ibarak (2011) aztertu ditu nagusiki KA erabiltzeko arrazoiak. Batetik, gaitasun falta aipatzen da, izan hiztunen gaitasuna euskaraz edo euskarak komunitatean duen prestigio txikia. Hain zuzen, Ibarak (2011) dioenez, hiztegi espezifikoeekin lotutako gaiak, hala nola gai zientifikoak edota administraziokoak, prestigio gehiago duen gaztelaniaz ekoiztea ohikoa da euskaldunengan. Ibarak (2011) KA egiteko nabarmentzen duen beste erabilera bat da funtzio erretorikoak edota espresiboak egitea. KA gertatzeko hirugarren arrazoia funtzio metalinguistikoa da, hots, hitz-jokoak. Era berean, haserreak eta hitz itsusiak esateko ere KA ohikoa da Lanttok (2014) aipatzen duen moduan. Arrazoiekin bukatzeko, sarkasmoa eta ironiaren erabilera gaztelaniaz egitea ere zabaldua dagoenez gure artean, Ibarak (2011) arrazoi moduan azpimarratzen du.

### **3.2. Murriztapen gramatikalak**

KAren ezaugarri gramatikalak aztertu dituztenek hainbatetan erakutsi dute murriztapen edo arau gramatikalak daudela eta dena ez dela posible (Poplack, 1980; Bullock eta Toribio, 2009; Myers-Scotton 1993a). KAren murriztapen gramatikalak aztertzekeo biziki baliotsuak eta interesgarriak dira honelako ezaugarriak ikertzekeo *conflict site* delakoak. Hauek alternatzen diren hizkuntzen gramatikek ezaugarri

gramatikal ezberdinak dituzten egiturak dira, hala nola generoa gaztelaniaz eta izena ingelesez ematea; esaterako, *el/la door*.

Chan-ek (2009) esan zuenez, ez dago murriztapen unibertsalik, baina badaude nolabaiteko patroik edo erregularitasun batzuk laguntzen dutenak murriztapen batzuk aplikatzen KA egiten duten bi hizkuntzen artean. Hau da, ez dira ausaz hizkuntza bateko eta beste bateko hitzak perpausean jartzen; beste era batera esanda, nolabaiteko egitura edo gramatika bat dago. Bestalde, zenbait ikertzailek (Chan, 2009; Lopez, 2020; MacSwan, 2007) proposatu dute ez dagoela inolako murriztapen zehatzik, formalik edo unibertsalik KAri dagokionez, murriztapen horiek KAn konbinatzen diren bi hizkuntzen araberakoak direla.

Poplackek (1980) bi murriztapen klasiko proposatu zituen KAren arau gramatikaletako batzuk azaltzeko (gerora hainbat kontradibide agertu badira ere): batetik morfema askearena (*the free morpheme constraint*); eta bestetik, baliokidearen murriztapena (*the equivalent constraint*). Lehenengoak defendatzen du hitz barnean, forma lexikoen eta hizkien artean ezin dela KArik egin; adibidez, *\*eat-iendo*, “*jaten*” esateko. Bigarrenaren arabera, ordea, konbinatzen diren bi hizkuntzek ezin dute beste hizkuntzaren arau sintaktikorik apurtu, hau da, alternantzia ematen den justaposizioan ezin da gertatu beste hizkuntzaren arau sintaktikorik apurtzen duen kasurik.

KAn dauden arau gramatikalak azaltzeko proposamen teoriko desberdinak egin dira literaturan. Teoria ezagunenetakoa bat *Matrix Language Frame* (MLF) deritzona da (Myers-Scotton 1993a). Teoria horren arabera, alternantzia gertatzen den hizkuntzen artean asimetria dago: horietako bat *Matrix Language* (ML) edo hizkuntza matrizea da, eta bestea, berriz, *Embedded Language* (EL) edo menpeko hizkuntza (Myers-Scotton, 1993a). Hizkuntza matrizeak bi printzipio biltzen ditu: batetik, *System Morpheme Principle* (SMP), eta bestetik, *Morpheme Order Principle* (MOP). Lehenak definitzen du zein izango den esaldiak edo perpausak izango duen sintaxia edota zein morfema funtzional izango dituen, esate baterako, zein hizkuntzatan egongo den aditz jokatua edota pluralgilearen marka (Myers-Scotton, 1993a; Bellamy *et al.*, 2022). Bestalde, MOP printzipioak zein hizkuntzaren hurrenkera erabiliko den zehazten du, eta erabiltzen den hizkuntzaren hurrenkera izango da hizkuntza matrizea eta beste hizkuntza, ordea, menpekoa (Bellamy *et al.*, 2022).

Myers-Scottonen (1993a) proposamenaren adibide dugu (21)ko ingelesaren eta swahiliaren arteko KA. Bertan ikusten denez, swahilia hizkuntza matrizea zen (ML) eta ingelesa, aldiz, menpeko hizkuntza (EL). (21a) adibidean *intra-sentential* motako KA

egiten du, eta SMParen arabera, swahiliaren hitz hurrenkeran dagoela kontrastatu daiteke ingeleseko itzulpenarekin, EL ingelesa izanik. (21b) adibidean, ordea, badirudi *intersentential* motako KA egin zuela hiztunak, ELa esaldi amaieran baitago. Subjektu/predikatu arteko KA egiten du adibide honek, predikatua ingelesez *wash all the clothing* eta subjektua swahilieraz *ni- -ka-*. (21c) adibidea ere, (21b) adibidearen antzerakoa da, baina oraingoan swahilia amaieran dago. Honetan, aldiz, bi esaldik osatzen dute adibidea, eta esaldi bakoitza hizkuntza ezberdinetan dago.

(21) a. Wa-ju-a                      yeye hu-wa      jamaa    w-a    *job small-small* hivi  
 2s/PRES-know-INDIC he    HABIT-COP person    CL 1-of                      thus  
 ‘You know he was a small time thief-just that, small’

b. Ni-me-maliz-a      ku-tenenez-a    vi-tanda    ni- -ka-    *-wash all the clothing*  
 1s-PERF-finish-INDIC INFIN-fix-INDIC CL 8-beds 1S CONSE  
 ‘I have finished making the bed and I washed all the clothing’

c. *It [Kisumu] is half that of Nairobi’s population. Mombasa and Kisumu ought to be given different city status.* Hata Wakikuyu wamesamba huko—  
 nini— huko, huko Kisumu  
 ‘...Even the Kikuyu are spread out there —you know— there, there [in] Kisumu’  
 (Myers-Scotton, 1993a, 80-81. or.)

Murritzapen gramatikalen azalpen teorikoekin jarraituz, Chomskyren (1991) *Minimalist Program* (MP) erduetan oinarritutakoak daude. MP hurbilketa teorikoaren arabera perpausa egiteko behar diren osagarri guztiak (sintaxia, morfologia, fonologia...) lexikoi baten daude, eta gizakiok hortik behar duguna hartzen dugula. Behin aukeratuta, azaleko edo behin-behineko egitura batean dago perpausa. Hain zuzen, MacSwanek (2005) teoria hori nolabait KAra aplikatu zuen. Autoreak nabarmentzen du ez dagoela murritzapenik KAn, baina *murritzapen* hitza ez du modu deskriptiboan erabiltzen, baizik eta modu teknikoan. Hau da, bere ustez ez dago KAdun esaldi onartezinik, ez baitago arau edo teoria gramatikalik KAri erreferentzia egiten diona berariaz (MacSwan, 2005). Ondorioz, KAren zuzentasuna eta onargarritasuna bi hizkuntzen arteko gramatikak zehaztuko du (Poplack, 1980; MacSwan, 2005).

Ildo beretik, Chanen (2009) *The Null Theory* izeneko proposamenaren arabera, edozein KA mota edo egitura posible da, baldin eta inolako gramatika lege unibertsalik urratzen ez bada. Labur esanda, KA hizkera naturalak gidatzen du (Hoot eta Ebert, 2021). Hala ere, printzipioz onargarriak izan behar ez liratekeen edo naturalak ez diren egiturak ere jaso izan dira literaturan, adibidez aditz elkarketa konbinatuetan, *portmanteau* egituretan edota objektuaren erorketa dutenetan (Chan, 2009). (22a)n ikusten denez, AO

motako aditz batek OA hitz hurrenkera hartzen duenean gertatzen da egoera hau, adibidez, matathi-ingelesa hizkuntzen arteko KAn. (22b) adibidean, aditz bera hizkuntza bietan agertzen da, hau da, nolabaiteko aditzen erreduplikazioa gertatzen da, esaterako ingelesa-japoniera artean. Azkenik, *object drop* dago eta iragankorra den aditz baten objektuaren isiltzea gertatzen da (22c).

(22) a. Matathi-ingelesa  
 mula **khurcyā paint** kartāt  
 boys chairs paint do+TNS  
 “Boys paint chairs.”  
 (Joshi, 1985a, 193. or., *apud.* Chan, 2009)

b. Ingelesa-japoniera  
 We **bought** about two pounds gurai **kattékita** no  
 We bought about two pounds about bought  
 “We bought about two pounds.”  
 (Nishimura, 1985a, 193. or., *apud.* Chan, 2009)

c. Ingelesa-japoniera  
 She **karita**  
 She borrow-past  
 “She borrowed [it].”  
 (Nishimura, 1985a, 137. or., *apud.* Chan, 2009)

### 3.2.1. Subjektu/predikatuaren KAn murriztapenak

Master amaierako lan honetan aztergai dugun egiturari dagokionez, subjektu eta predikatu arteko KA lehenago aztergai izan den egitura da. Oro har, subjektu eta predikatuaren arteko KA gertatzen denean asimetria bat dago, hau da, subjektu posizioan DS onargarriagoa da izenordaina baino (Koronkiewicz, 2020; Bellamy *et al.*, 2022). Koronkiewicz (2020) gaztelania-ingelesa KAn frogatu zuen DS zuten subjektuak (23), bai gaztelaniaz bai ingelesez, gehiago onartzen zirela izenordainak baino (24).

(23) Ese hombre *ordered a glass of water*

(24) \*El *ordered a glass of water*  
 (Koronkiewicz, 2020, 250. or.)

Bellamy-k *et al.* (2022) egitura berdina izan zuten aztergai p'urhepecha (Michoacan, Mexiko) hizkuntzaren eta gaztelaniaren arteko KA egiten duten hiztun komunitate bat aztertuz, subjektu-predikatu KAdun esaldien murriztapenak ezagutzeko asmoz. Ariketa batean partaideei bi aukeretatik bat hartzeko eskatu zitzaizkien, alegia, onena hautatzeko. Subjektua p'urhepecha hizkuntzan eta predikatua gaztelaniaz zegoen batzuetan, eta alderantziz besteetan, eta subjektuen artean hiru baldintza aztertu zituzten: DS eta 3 izenordain mota (*zu eta ni*, *gu eta hura*). Emaitzen arabera, subjektu posizioan

bai gaztelaniaz bai p'urhepechan 3. pertsona izenordaina zen onartuena (25). Gainera, ikusi zutena zen bi hizkuntzetan onartuago zeudela izenordain koordinatuak/indartsuak, *tú y yo/ t'u ka ji*, (26), ez-koordinatuak baino, *nosotros/ jucha*, adibidez (27). Labur esanda, subjektuak izenordainak direnean, bai p'urhepechan bai gaztelaniaz, 3. pertsonako izenordainak dira onartuenak (25) KA egiterakoan, gero, izenordain koordinatuak (26), eta azkenik, onargarritasun maila gutxien duenak 1. pertsonako izenordainak dira (27).

- (25) *ima*                    canta canciones tradicionales.  
Berak-FEM    abesti tradizionalak abesten ditu.
- (26) *t'u ka ji*            corremos muy lentamente.  
Zuk eta nik    oso astiro egiten dugu korrika.
- (27) *ji*                    corro muy lentamente.  
Nik                astiro egiten dut korrika.

### 3.2.2. Ergatiboa euskaldunen KAn

Azkenaldian euskaldunen kode-alternantziak arreta handia jaso duen arren, euskara-gaztelania edo euskara-frantsesa KAn ezaugarri eta murriztapen linguistikoak deskribatu eta azaltzeaz arduratu diren lan gehienetan DS nahasiak aztertu dira batik bat, generoa ezartzeko estrategiak zer-nolakoak diren ezagutzeko (Iriondo, 2017; Munarriz *et al.*, 2021; Parafita-Couto *et al.*, 2015b).

Lan honen helburua ergatiboa aztertzea da, eta horretarako subjektu-predikatu arteko KAdun egiturak izango ditugu oinarri. Ergatiboa KAn aztertu dituen lan bakarrak, nik dakidala, Epelde eta Oyharçabalenak (2017, 2020). Lan horretan, euskara-frantsesa KAn zentratu ziren batik bat, eurek esan bezala, corpus murrizt batean gaiarekiko lehen hurbilketa aurkezteko.

Epelde eta Oyharçabalen (2017, 2020) lanek ergatibo kasu-markaren erabilera aztertu zuten euskara-frantsesa KAn, hots, subjektua euskaraz eta predikatua frantsesez (ez zuten horrelakorik kausitu ACOBA corpusean), baita subjektua frantsesez eta predikatua euskaraz zegoenean (28). ACOBA corpuseko datu murriztuetan oinarrituta, ondorioztatu zuten euskarazko aditza iragankorra zenean, frantsesez zegoen subjektua ergatibo kasu-markarekin ageri zela corpusean erregistratu ziren zazpi kasuetan (29a), (29b). Corpusean ez zuten aurkitu aditz iragankorra frantsesez eta euskarazko subjektua zuen adibiderik, ezta absolutibo testuinguruan ergatibo kasu-marka zuen adibiderik.

- (28) Eta beharbada da, badakizu, ohetik erori da, eta beraz, *le chirurgien* edo hartu dit eta...

(29) a. Eta beraz gaixoa, *chanoine Lafittek* erraten: “oraiko eskuara, ikastoletako eskuara, ba, zer manerak!”

b. *Brosse-ak* eiten tu, diseiniak

(Epelde eta Oyharçabal, 2020, 83-84. or.)

Epeldek eta Oyharçabalek (2017, 2020) ondorioztatu zuten euskarazko aditza iragankorra bazen, subjektuak ergatibo marka hartuko zuela; eta aditza frantsesez egonda ere ergatibo marka hartzen zuela. Horrez gain, ondorioztatutako beste ideia bat izan zen “aditzaren eta izen buruaren konfigurazio guzietan, determinatzailearen hizkuntza/posizioa eta ergatiboaren marka elkarri lotuak doaz” (Epelde eta Oyharçabal, 2017, 195. or.), hau da, ergatiboaren marka euskarazko DSeKin onargarriagoa dela beste hizkuntza bateko DSeKin baino, adibidez, (30). Edonola ere, egileek eurek aitortu zuten datu gutxitan oinarritu zirela, eta beraz, sakonago aztertzea mereziko lukeela.

(30) Gizon hark *me disait*

( Epelde eta Oyharçabal, 2017, 196. or.)

#### **4. Helburuak eta aurreikuspenak**

Aurrekari horiek kontuan hartuta, master amaierako lan honen helburua da ergatiboaren erabileran sakontzea, euskara-gaztelania KAren erabilera abiapuntu hartuta. Hartara, aukera egongo da apenas aztertu gabe dagoen ergatiboaren eta KAren arteko harremanean sakontzeko eta euskara-gaztelania arteko talka gramatikala duten egitura horiek hobeto ezagutzeko. Horretarako, ebidentzia enpiriko nagusia H1 euskara duen hiztun heldu baten kasu-azterketa izango da. Hain zuzen, ikerketa honetarako motibazio nagusia izan da kasu-azterketako parte-hartzailearen ergatibo kasu-markaren isiltzearen eta KAren erabilera ugariaren ebidentzia anekdotikoa. Abiapuntu hori hartuta, ergatiboaren erabilera itxuraz ezohiko hori zehaztasunez deskribatu eta azaldu nahi dut hiztunaren hizkuntza-ibilbidea aintzat hartuta. Horrekin batera, euskara-gaztelania KA ergatiboaren erabileraren inguruko murriztapen gramatikalak ezagutu nahi ditut, heldu osasuntsuen talde bateko ebidentzia baliatuta.

Zehazki, nire xede nagusiak hiru dira: lehenik, kasu-azterketaren kasuan kualitatiboki eta kuantitatiboki azaltzea nolakoa den ergatiboaren erabilera ekoizpen sasi-espontaneoan (euskara hutsezkoetan zein KAdun esaldietan) eta nolakoa den horrekiko oharmena (onargarritasun ariketa batean); bigarrenik, hiztun horren euskararen eta KAren erabileran eragina izan dezaketen faktore psiko-soziolinguistikoak arakatzea. Eta hirugarrenik, subjektu eta predikatuen arteko alternantzia duten euskara-gaztelania

enuntziatuen ezaugarri linguistikoak arakatzea kasu-marken erabilerari bereziki erreparatuz onargarritasun ariketa bateko ebidentzia baliatuta, bai kasu-azterketako parte-hartzailearekin bai heldu osasuntsuen taldetxo batekin.

Ikerketa-galdera nagusiak eta horietako bakoitzerako aurreikuspenak hauexek dira:

1. IG Zer-nolako ezaugarriak ditu ergatiboaren erabilerak H1 euskara duen hiztun honengan?

1.1. Kasu-markatzean ageri den patroia bat dator literaturan ikusi denarekin?

Nire aurreikuspena da, batetik, ekoizpenean *ez-egitezko* hutsak *egitezkoak* baino nabarmenago izatea, jabekuntzan (Ezeizabarrena, 2012; Duguine & Köpke, 2019 Huarte, 2022) eta helduen erabileran (Rodriguez-Ordoñez, 2020) ikusi den bezala (baita H1 hiztunengan ere). Ildo beretik, oharmenari begira ere, aurreikusten dut gehiago onartzea gramatikaltzat ergatiboaren kasu-markaren isiltzea duten egitura iragankorrek, absolutibo testuinguruan ergatiboaren gainerabilera dutenak baino (Zawiszewski *et al.*, 2011; Mazkieran, 2021). Bestalde, ergatiboaren markatze eta gauzatzearen arteko asimetria aurreikusten dut; hots, kasu-marka arazotsu gertatzea, baina ez aditz-morfologiako morfemetan (Ezeizabarrena, 2012; Zawiszewski *et al.*, 2011).

1.2. Ergatiboaren erabilera berdintsua al da KAdun esaldietan eta euskara hutsezkoetan?

Nire aurreikuspena da ergatibo kasu-marka are gehiago isilduko dela KAdun esaldietan euskara hutsezkoetan baino. Kontuan izanda natiboek zuzentasun maila altuagoa dutela H2 hiztunek baino euskara hutsezko esaldietan ergatiboaren ekoizpen zein oharmenean (Rodriguez-Ordoñez, 2020; Huarte, 2022). Hizkuntza bien sistema morfologikoak ezberdinak direnez, espero dezaket hizkuntzen arteko efektua handiagoa izatea KAdun esaldietan, eta gatazka-egoera horretan gaztelaniaren “araua”-ren eragina nabarmenago agertzea.

1.3. Zer faktore psiko-soziolinguisikok izan dezake eragina hiztunaren euskararen erabilera eta gaitasunean?

Aurreikusten dut hizkuntza biografiak (cf. Kasares, 2014) kasu azterketako hiztunaren erabileran eragin dezaketen hainbat faktoreren eragina agerian uztea. Batetik, haren H1 eta hurbileko familian zein hizkuntza erabiltzen den; gero, eskolako hezkuntza (zein hizkuntzatan izan den), eremu sozialean erabilitako hizkuntza (lagunekin, herrian...). Horrez gain, espero dut lan munduan erabiltzen duen hizkuntzak ere eragin handia izango duela hiztunarengan. Bukatzeko, hiztunaren jarrera hizkuntzarekiko eta

dituen hizkuntza-politikak zer esana izatea espero dut. Beraz, aurreikuspena da faktore psiko-soziolinguistikoek hiztunaren euskararen erabileran eta gaitasunean eragina izango zutela.

2. IG. Nolako da ergatiboaren erabilera subjektua hizkuntza batean eta predikatua bestean duten euskara-gaztelania KAdun esaldietan?

2.1. Euskara hutsezko esaldietan aurkitzen diren murriztapen linguistiko berberak aurkituko dira?

Hipotesia da murriztapen berberak agertuko direla. Epelde eta Oyharçabalek (2017, 2020) azpimarratu zuten moduan, euskarazko aditza iragankorra bada, gaztelaniazko subjektuak ergatibo markarik ez onartzea espero dut. Bestalde, gaztelaniazko aditza iragankorra bada, espero dudana da euskarazko subjektuak ergatibo markarik ez izatea, gaztelania hizkuntza nominatibo-akusatiboa baita. Gaztelaniazko aditza iragangaitza bada, aldiz, ez dut espero ergatibo markarik euskarazko subjektuan.

Bestalde, *The Null Theory*ren (Chan, 2009) arabera KA egiteko dagoen oinarritzko legea da alternantzia guztiak direla posible gramatika legerik apurtzen ez bada. Behin hori argi izanda, MFL teoriak ere azal dezake KAren egitura nolako izango den; izan ere, SMPak esaldiaren sintaxia definitzen du eta MOPak hizkuntzaren hurrenkera (ML edo EL) definitzen du (Chan, 2009; Myers-Scotton, 1993a). MLFren arabera, aditz jokatu gaztelaniaz badago, orduan ez litzateke esperoko subjektuak ergatiboa hartzea. *The Null Theory*-ren arabera, esperoko litzateke gaztelaniazko predikatuek subjektu absolutiboa izatea eta euskarazkoek berriz, subjektu ergatiboa.

2.2. Beste hizkuntza bikote batzuetan aurkitu diren murriztapen linguistikoak ageri dira euskara-gaztelania KAn?

Beste hizkuntza bikoteetan bezala (Koronkiewicz, 2014; Bellamy-k *et al.*, 2022) aurreikusten dut KAn onargarriagoak izatea DSak izenordainak baino, eta DSen artean 3. pertsona singularreko izenordainak izatea onargarrienak, batik bat kontuan izanda euskaraz ere *hura* erakuslea dela (p'urepechan bezala).

## 5. Metodologia

Zehaztasun metodologikoak aurkezteko parte-hartzaileekin hasiko naiz; ondoren, ikerketaren diseinuan datuak biltzeko baliatutako hiru ariketak aurkeztuko ditut. Eta bukatzeko, prozedura eta datuen analisiari buruzko zehaztasun batzuk egingo ditut.



## 5.1. Parte-hartzaileak

Kasu-azterketarako parte-hartzailea Maria<sup>9</sup> da, 55 urte ditu eta Arratiako<sup>10</sup> bailarako (Bizkaia) herri batean jaio zen. Bere H1 euskara da, nahiz eta eskolako hizkuntza bai txikitan eta bai gaztaroan gaztelania izan. Nahiz eta hezkuntza formala gaztelaniaz jaso, Hizkuntza Eskolan euskarako titulua atera zuen, eta hori lortzeko bizkaieraz eta batuaz klaseak jaso zituen. Hortaz, gaitasun handiko elebiduna zela ondoriozta daiteke. Egun euskara eta gaztelania darabiltza egunerokoan, eta euskarazko kontsumo pixka bat ere aitortzen du.

KAdun esaldien onargarritasun ariketarako, hizkuntza-profilari dagokionez<sup>11</sup> Maria eta haren antzerakoak diren beste 10 parte-hartzaileen datuak jaso dira (ik. 1. taula behean). 1. taulan jaso dira parte-hartzaile horiei dagozkien ezaugarri nagusiak. Denak jaio ziren Mariaren herri berean, eta antzeko adina dute (55-62 urte). Hiztun guztien H1 euskara da (batzuk euskara-gaztelania aldibereko elebidunak dira, hots, 2H1) eta denak gaztelaniaz eskolatuak izan ziren (euskara ere tartean zela). Taulan ikusten denez, euskara eta gaztelania darabiltzate egunerokoan, eta euskarazko hedabideak kontsumitzen dituzte.

1. taula: Kontrol-taldeko 10 parte-hartzaileen eta Mariaren hizkuntza-profila. Iturria: norberak egina.

	Eskolan hizkuntza	Etxeko hizkuntzak (eusk-gazt)		Egungo etxeko hizkuntza	Euskaraz <sup>12</sup>					
		H1 E	2H1 E-G		Euskararen erabilera			Euskararen Kontsumoa		
					Familia	Lana	Lagunak	Irakurri	TB	Irratia
KT1	E-G		X	E	1	1	2	3	2	2
KT2	E-G		X	E-G	2	3	2	3	4	1
KT3	E-G	X		E	2	3	2	3	1	1
KT4	G	X		E	1	3	2	3	3	3
KT5	G		X	E-G	2	3	2	3	1	1
KT6	G		X	G	2	3	3	4	5	3
KT7	G	X		G	2	2	2	4	5	1
KT8	G		X	G	2	2	3	4	2	2

<sup>9</sup> Anonimotasuna gordetzeko ezizen hori erabiliko dut.

<sup>10</sup> Arratia-Nerbioi eskualdea Bizkaiko hego-mendebaldean kokatzen den bailara da. 2021eko soziolinguistika klusterraren kale neurketaren emaitzek erakusten dute bailara honetan % 21,3 dela euskararen erabilera (Soziolinguistika Klusterra, 2022). Hori dela eta, esan daiteke eremu euskalduna dela.

<sup>11</sup> Mariaren eta kontrol-taldearen hizkuntza-profila betetzeko Mazkieranen (2022) galdetegi laburra erabili dut.

<sup>12</sup> Talde honen barruan dauden: *Familia*, *Lana*, *Lagunak* azpiatalean hiru aukera eman zitzaizkien: 1) Bai, beti; 2) Bai, askotan edo gehienetan; 3) Ez, inoiz. Bestalde, *Irakurri*, *TB* (telebista), *Irratia* azpiatalean aukera hauek eman zitzaizkien: 1) Egutero, 2) Astean behin edo bitan, 3) Hilabete behin edo bitan, 4) Urtean behin edo bitan, 5) Inoiz ez. Espazioa dela eta, taulan hitzunek aukeratutako emaitzaren baliokide den zenbakia jarri da.

KT9	E-G	X		E	2	1	2	3	1	3
KT10	E-G	X		E	2	1	3	3	2	3
Maria	E-G	X		E-G	2	3	2	4	2	1

## 5.2. Ikerketaren diseinua

Ikerketa honetarako ebidentzia enpirikoa lortzeko bi metodo eta hiru ariketa ezberdin baliatu dira: 1) elkarrizketa glotobiografikoa (cf. Kasares, 2014); 2) euskara hutsezko gramatikaltasun ariketa bat (Mazkiaran, 2022) eta 3) euskara-gaztelania esaldien onargarritasun juzkuen ariketa bat. Lehen biak Mariarekin egin dira, eta hirugarrena Maria eta kontrol-taldearekin. Jarraian dator ariketa bakoitzaren deskribapena.

### 5.2.1. Elkarrizketa glotobiografikoa

Kasaresi (2014) jarraituz, elkarrizketa glotobiografikoa egin zitzaion kasu-azterketako partaide Mariari bi helbururekin: a) hiztunaren ibilbide linguistikoa ezagutzea, eta hizkuntzekin daukan erabilera eta harremana sakonetik ezagutzea (hizkuntzen erabileran eragina duten faktore sozio-psikolinguistikoak arakatzeko), eta b) ekoizpen erdiespontaneoko datuak lortzea. Elkarrizketa ahoz egin zitzaion liburutegiko gela batean. Guztira, 40 bat galdera egin zitzaizkion Kasaresen (2014) oinarritutako gidoi bat erabiliz (ik. § 10.1. eranskina). Galderetan honako hauek zehaztasunez ezagutzea bilatzen zen: adin-tarte desberdinetako hizkuntzen erabilera, hizkuntzekiko harremanak eta hizkuntzekiko familia-politikak eta erabakiak, eta azkenik, KAren erabilera eta jarreari buruzko informazioa (azken horiek Pérez, 2022 lanaren ildotik).

Elkarrizketak 80 bat minutuko luzera izan zuen eta grabagailu batekin grabatu zen, geroago transkribaketa egite aldera. Transkripzio ortografikoa baliatu da nagusiki, baina hiztunaren ahoskerako aldaera dialektologikoa mantenduz. Ariketa honen kasuan, bi emaitza aztertu ziren: a) edukia, hots, hiztunaren erabileran eragina izan dezaketen ezaugarri psiko-soziolinguistikoak eta b) ekoizpena bera, ekoizpen sasi-espontaneo gisa linguistikoki aztertu zena.

### 5.2.2. Gramatikaltasun ariketa

Mazkiaranek (2022) diseinatutako gramatikaltasun ariketaren helburua da ergatiboaren gauzatze bien (kasu-marka eta aditz-morfologiako ergatibo komunztadura morfema) oharmena nolakoa den aztertzea. Zawiszewski *et al.* (2011) lana abiapuntu izandako ariketa honetan, hainbat esaldi irakurrarazten zaizkie parte-hartzaileei online eta

haiek zuzenak edo okerrak diren esan behar dute. Esaldiak euskara hutsean zeuden (ik. Mazkieran, 2022) eta lau baldintza esperimental ageri ziren (ikus 2. taula adibideetarako): baldintza semantikoa (kontrol gisa), absolutibo kasu-markaren baldintza, ergatibo komuntadura baldintza eta ergatibo kasu-markaren baldintza. Oro har, 160 esaldi esperimental zeuden, eta beste hainbeste betegarri, hau da, guztira 320 esaldi. Esaldiok, gainera, esaldi hurrenkera ezberdinetan aurkeztu ziren (posizioen eragina kontrolatzeko). Ikus 2. taula baldintza esperimentaletarako.

2. taula: Gramatikaltasun ariketako materialak (Iturria: Mazkieran, 2022, 26. or.)

Baldintzak		1. posizioa (SOV)	2. posizioa (OSV)	3. posizioa (OVS)	4. posizioa (VOS)
Ergatibo kasu-marka	zuzenak	<b>Ainhoa</b> txakurra aterako du paseatzera	Mugikorra <b>Naiarak</b> ekarri zuen atzo	Loreontzia erosi du <b>Edurnek</b> gaur	Bihar prestatuko du gosaria <b>Ainhoa</b>
	okerrak	* <b>Ainhoa</b> txakurra aterako du paseatzera	*Mugikorra <b>Naiara</b> ekarri zuen atzo	*Loreontzia erosi du <b>Edurne</b> gaur	*Bihar prestatuko du gosaria <b>Ainhoa</b>
Absolutibo kasu-marka	zuzenak	<b>Aitor</b> hondartzara joan da	Gurasoekin <b>Naroa</b> euskaraz mintzo da	Mendira joango naiz <b>ni</b> bihar	Joango da paseatzera <b>Garbiñe</b>
	okerrak	* <b>Aitorrek</b> hondartzara joan da	*Gurasoekin <b>Naroak</b> euskaraz mintzo da	*Mendira joango naiz <b>nik</b> bihar	*Joango da paseatzera <b>Garbiñek</b>
Ergatibo komuntadura	zuzenak	Nik zu etxera ekarri <b>zaitut</b>	Ni eraman <b>nauzu</b> mendira	Mugikorra amari erosi <b>diot</b> nik gaur	Gustuko <b>duzue</b> bidaiatzea zuek
	okerrak	*Nik zu etxera ekarri <b>zaitu</b>	*Ni eraman <b>nau</b> mendira	*Mugikorra amari erosi <b>dio</b> nik gaur	*Gustuko <b>du</b> bidaiatzea zuek
Baldintza semantikoa	zuzenak	<b>Azterketa</b> oso erreza izan zen.	Zuek <b>perretxikoa</b> jan duzue gaur	Lapurrek eskolatik <b>liburua</b> ostu dute	Ainararen etxean ikusi nuen nik <b>katua</b>
	okerrak	* <b>Horma</b> oso erraza izan zen	*Zuek <b>harria</b> jan duzue gaur	*Lapurrek eskolatik <b>kamioia</b> ostu dute	*Ainararen etxean ikusi nuen nik <b>fabrika</b>

### 5.2.3. Onargarritasun juzkuen ariketa

Ariketa hau master amaierako lan honetarako diseinatu nuen subjektu eta predikatuen arteko alternantzia duten euskara-gaztelania esaldien ezaugarri edo murriztapen linguistikoak aztertzeko asmoz. Onargarritasuna ariketa honetan parte-hartzaileek Likert eskala batekin (1-4) kalifikatu behar zituzten esaldiak, 1 onargarritasun gutxien duena eta 4 onargarriena dena. 3. taulan ikusten denez, 3 aldagai zeuden (subjektuaren hizkuntza, predikatu mota eta subjektuaren kasu-marka) eta 8 baldintza. Horrela, 64 esaldi esperimental (baldintza bakoitzeko 6 esaldi), eta beste horrenbeste betegarri zeuden, guztira 128 (ik. § 10.3. eranskina). *Microsoft Forms* plataforma baliatu nuen eta Mariak zein kontrol-taldeak online bete zuten.

3. taula: Onargarritasun juzkuen ariketako baldintza bakoitzeko esaldi baten adibidea.

Subjektuaren hizkuntza	Predikatua	Kasu-marka	Esaldia
Subjektua euskaraz	Igkor.	-K	Gizon horrek <i>ha comprado un pastel</i>
		Ø	Gizon hori <i>ha comprado un pastel</i>
	Igaitz.	-K	Kirolari horrek <i>ha subido al pódium</i>
		Ø	Kirolari hori <i>ha subido al podium</i>
Subjektua gaztelaniaz	Igkor.	-K	<i>Ese hombre</i> K pastel bat erosi du
		Ø	<i>Ese hombre</i> pastel bat erosi du
	Igaitz.	-K	<i>Ese deportista</i> K podiumera igo da
		Ø	<i>Ese deportista</i> podiumera igo da

### 5.3. Prozedura

Elkarrizketa glotobiografikoa, Mazkianen (2022) euskara hutsezko gramatikaltasun ariketa eta onargarritasun juzkuen ariketa abian jarri ziren EHUko Gizakiekin lotutako ikerketarako Etika Batzordeko oniritzia jaso ondoren (M10/2022/425 kodea). Elkarrizketa izan zen egindako lehen proba (80'). Esan bezala, elkarrizketa hori ahoz egin zen. Handik lau egunera online egin zuen Mariak Mazkianen (2022) euskara hutsezko gramatikaltasun ariketa (55-60'). Beste bi egunera KAdun esaldien onargarritasun juzkuen ariketa burutu zuen online (55'). Kontrol-taldeko parte-hartzaileek ere online egin zuten onargarritasun juzkuen ariketa, eta horrekin batera hiztun profila ezagutzeko Mazkianen (2022) galdetegi laburra.

### 5.4. Datuen analisisa

Elkarrizketa glotobiografikotik ateratako datuak bi dira: batetik, hiztunaren ibilbide linguistikoa eta haren euskararekiko harremana eta erabilera; eta bestetik, ergatiboaren eta KAreko ekoizpeneko datuak. Hain zuzen, elkarrizketa glotobiografikoko

transkribaketa baliatuta ezaugarri gramatikal jakin batzuetan jarri dut arreta, hala nola KAren agerpena, kasu-marken erabilera (esaldi iragangaitz eta iragankorretan), eta subjektu-aditz arteko komunztadura zuzena, etab. Ariketa horretan eta gramatikaltasun ariketaren kasuan zuzentasunaren inguruko datu kuantitatiboak aurkeztu dira, eta Chikarratu testak egin dira zuzentasun indizeak alderatzeko. Bestetik, parte-hartzaile guztiek eginiko KAdun esaldien onargarritasun juzkuen ariketaren emaitzen analisirako, estatistika deskriptiboaz gain emaitzak baldintzen artean alderatzeko estatistika inferentziala baliatu dut, hain zuzen Wilcoxon test ez-parametrikokoak (datuen banaketa ez baita normala).

## 6. Emaitzak

Lehenik, Mariaren elkarrizketa glotobiografikoko emaitzak aurkeztuko ditut; alde batetik, hiztunaren ibilbide linguistikoari dagozkionak; eta bestetik, ekoizpen erdiespontaneoari dagozkionak. Ondoren, Mariak egindako euskarazko gramatikaltasun ariketako emaitzak aurkeztuko ditut. Azkenik, bai Mariaren bai kontrol-taldearen onargarritasun juzkuen emaitzen berri emango dut.

### 6.1. Elkarrizketa glotobiografikoa

#### 6.1.1. Hizkuntzaren erabileraren narrazio biografikoa

Maria Arratiako bailaran kokatzen den herri bateko 55 urteko hiztuna da. Bere HI euskara da, hori izan baitzen etxean txikitan ikasi eta erabiltzen zuen lehen hizkuntza. Gurasoek haien artean ere euskara erabiltzen zuten, baita Mariarekin eta haren nebarrebeekin ere. Txikitan hainbat seniderekin bizi zen baserrian. Frankismoa dela eta, eskola gaztelaniaz zen, baina dena ez zen gaztelania izan, Oinarrizko Heziketa Orokorreko (OHO) azken bi urteetan irakasgai pare bat euskaraz ikasten zituzten, tartean Erljioa. Nonbait, diktaketak egiten zituzten euskaraz, ortografia eta puntuazioa landuz. OHO bukatu eta gero, Hizkuntza Eskolako euskarako agiria lortu zuen. Horretarako, bi urtez egon zen auzoko baten klase partikularrak jasotzen. Ondoren, *Euskarazaleak*<sup>13</sup>

---

<sup>13</sup> 1967an sortutako erakunde autonomo bat izan zen, gaur egun martxan jarraitzen duena. Honen helburua izan zen euskararen erabilera eta ezagutza sustatzea. Euskara eskoletan sartzeko 60,000 bat firma batu zituzten. Horiakin, Espainiako Gobernuari eskaera ofizial bat egin zioten, baina ezezkoa jaso zuten. Alabaina, euskara irakasleak prestatzen hasi ziren, bai eta irakatsi beharreko materialak ere. Horrekin batera, irakasle lanak egiteko beharrezkoa behar zen titulu estraofizial bat atera zuten. *Euskarazaleak* elkartearen arrakasta nabaria zen, eta 500 bat ikasle zeuden apuntatuta urtero (Etxebarria, 2018; Labayru, 2017).

akademiara joan zen formazioa guztiz bukatze aldera. Beraz, euskararen aldetik hiztunak gaitasun handia zuela esan daiteke.

Haurtzaroan, herriko bizimoduan, hau da, dendetan, elizan, ile-apaindegian, plazan eta abar euskara erabiltzen zuen. Alabaina, farmaziara eta medikuarenera joatean gaztelania erabiltzen zuen, euskaraz ez zekitelako, askotan Bilbotik zetozen erdaldunak baitziren bertan lan egiten zutenak. Halaber, hark 14-15 urte zituenetik aurrera medikuak euskaraz zekien “*euskaldunbarrie* iziten zan, baia bueno euskeraz iteoan”. Beraz, horrek erakusten du eskertzen duela jendeak hari euskaraz egitea. Ondorioz, esan daiteke bere euskararekiko jarrera proaktiboa zela.

Gaztaroan, Harreman Publikoen Erdi Mailako Teknikaria ikasi zuen gaztelaniaz bi urtez Bilbon. Garai horretan, bere lagunetik harremanak euskaldun mantendu ziren, nahiz eta garaiko mutil-laguna erdalduna izan eta harekin eta haren lagunekin gaztelaniaz egin. Momentu hartan, gaztelania gehiago entzuten hasi zen bere baserrian; izan ere, Mariaren neba-arrebek erdaldunak ziren bikoteak ekarri baitzituzten etxera. Horrek ez du esan nahi gaztelania finkatu zenik hizkuntza bakar moduan baserrian. 25 urte zituenean, egun, bere senarra den gizon euskaldun batekin ezkondu zen, beraz, haien artean euskaraz egin dute oro har. Semea jaiotzean Mariak bere senarrarekin adostu zuen euskara ezinbestekoa izan behar zela semearen bizitzan. Hori dela eta, “oso ondo” —Mariak esana— hitz egin zieten D ereduko ikastetxe batean eskolatu zuten semea. Garai hartan, ‘Euskal Kultura’ izeneko ikastaro batzuetara joaten zen Maria euskara lantzerako. Horrelako jarrerarekin erakusten du interesa eta aldeko jarrera zuela euskararekiko eta haren kulturarekiko.

Behin umea izan eta gero lan mundura berriz sartzeko, geriatría-laguntzaile izateko ikastaro bat egin zuen gaztelaniaz. Hori eginda, lanean hasi zen ingurune euskaldun batean. Gero Bilboko auzo batera joan zen lanera, eta hor lan giro erdalduna nagusi zen. Oraindik bertan dirau lanean. Hiztunak onartzen du nolabaiteko eragina izan dezakeela gaztelaniak bere ahozko ekoizpenean (31).

(31) “- Elkarrizketatzailea: eta pasau jatzu nonoz baton batek esatea zezoz euskeraz ta zuk erantzun erderaz?

- Hitzuna: ba bai, bai

- Elkarrizketatzailea: eta hori zegaitik da? igual akostunbraute zauzelako beharren denpora guztien erderaz iten?

- Hitzuna: bai bai, hori de”

Mariak dio bere euskara mailarekin gustura dagoela eta ez dela sentitzen inor baino gutxiago, berak baserrian ikasi eta beti egin duen moduan hitz egiten duela, nahiz eta akademian eta auzokoarekin bizkaiera eta batua ikasi. Halaber, aipatzen du ikasitakoaren maila pixkana-pixkanaka txikitu egiten dela erabili ezaren ondorioz “ze ezpabere erabili ezik galdu iten da, ze nauk ikusten dot naure berba ikerea<sup>14</sup> da ikisiodan apurre ta ezpozu jarraituten dakizun apurre be galtzean doa”.

Kontuan izan behar da 16 urte daramatzala gaztelania nagusi den eremu baten lanean; ondorioz, gaztelania bihurtu da egunerokotasunean ekoizten eta entzuten duen zati handi bat. Euskara, aldiz, etxean erabiltzen du semearekin, senarrarekin, senitarteekin (euskaraz dakitenekin) eta bere gurasoen baserrian (erdaldunik ez badago). Aisian, txikitako lagunekin elkartzean euskaraz egiten du, baina laneko lagunekin gaztelaniaz egiten du. Hiztunak behin eta berriz errepikatu du elkarrizketan zehar, berak euskaraz egiten diola euskaraz dakienari, eta horrek haren inguruko guztiak batzen ditu. Mariak dionez, akademian ikasi duen gaitasun apurra (batuerarekin lotutakoa, hots, euskara jaso, edo behintzat formala edo etxekoa ez dena) mantentzen saiatzen da irratia entzunez, telebista ikusiz, libururen bat irakurritz... Beraz, gaztelaniaren erabilera oso handia da bere egunerokoan. Haren semearekin eta senarrarekin ere aitortu du batzuetan KA egiten duela ziur sentitzen ez denean, adibidez (32), edo hitzak etortzen ez zaizkionean (33). Mariak dio lantokian egiten duen gaztelania kantitatearen eragin zuzen bat dela (33).

(32) “gauze bat ezpaiata urtetan da beste era batera esaten bot, ba enauelako zelan da...*que no estoy muy segura de cómo decirlo y entonces lo digo de la otra forma que me sale. Si estoy en castellano y quiero decir algo en castellano y no me sale, no estoy segura de cómo decir en castellano, me sale en euskera, o estoy hablando en euskera y no me sale cómo decir esa palabra en euskera, pues la digo en castellano. No es que manche ni el euskera ni el castellano, es que complemento uno con otro.*”.

(33) “- E: eta ganera beharren bebai, kasi denpora guztien iten dozu erderaz, da hamasei urte esan dozu, ba bitu, hamasei urtean astelehentik barikure...”

---

<sup>14</sup> (e)iteko era

- H: bai bai, klaro (...) ze ezpabere erabili ezik galdu iten da, ze nauk ikusten dot naure berba ikerea da ikisiodan apurre ezpozu jarraituten dakizun apurre be galtzean doa”

Halaber, seguru erakutsi du bere burua galdetu diodanean ea gai izango zen KA gabe hitz egiteko, bai euskaraz bai gaztelaniaz, eta baietz esan du (34).

(34) - E: zuk usteozu zarela gai ez iteko hori? hau da, edo beti erderaz edo beti euskeraz?

- H: hombre proposatzen banaz bai, esaten boztezu “gaur in behogu denpora guztien euskeraz” ba bale... baie gero besteak be ulertu in behadaudie euskeraz klaro

Arestian aipatzen duen seguritate falta hori atxikitzen dio euskara lantzen ez jarraitzeari, gaitasun agiria 19 urterekin atera zuenetik, alegia. Haatik, gaur egun duena mantentzen saiatzen da, dela irakurriz, dela entzunez. Bidaltzen dituen WhatsAppak eta idazten dituen notak etxekoentzat euskaraz idazten ditu, betiere hartzailea euskalduna bada, noski. Halaber, aitortu du batzuetan presaz idazten badabil, gaztelaniaz idazteko aukera gehiago daudela, gaztelaniaz alfabetatua izan zelako eta beraz, erraztasun gehiago duelako.

Laburbilduz, hiztun honen H1 euskara da, baina gaztelaniaz eskolatua izan zen eta ikasketa guztiak gaztelaniaz egin zituen. Alabaina, euskara gaitasun agiria lortu zuen. Agiria lortu zuenetik, ez du euskara landu, etxeko euskara ‘korrientea’ —hark dioen duen moduan— egin du. Horrezaz gain, lan-esparruan gaztelania izan da nagusi. Hiztuna kontziente da KA egiten duela (35).

(35) “- E: bale eta iten dozu igual konbersaziño berean euskeraz da erderaz biek? Salto moduen?

- H: Bai! Askotan bai”

Familian ere aldaketak egon dira hizkuntza-politikei dagokienez, txikitan euskara zen hizkuntza nagusia, baina koinatu-koinata erdaldunak agertzen hasi ziren momentuan, gaztelaniaren erabilera hazi zen baserrian. Bere etxeko hizkuntza politikei dagokienez, argi zuten berak eta haren senarrak euskara izan behar zela semearen H1; horregatik, euskara hutsean egiten dute semearekin. Lagunekin, ordea, bi hizkuntzak darabiltza egunerokoan. 2. irudian ikus daiteke, laburpen gisa, garai bakoitzeko hizkuntzen erabilera islatzen duen Mariaren glotobiograma.





1. irudia: Mariaren glotobiograma. Iturria: norberak eginda.

### 6.1.2. Ergatiboaren azterketa ekoizpen erdiespontaneoan

Ekoizpen erdiespontaneoan hiru alderdi aztertu ditut bereziki ergatiboaren erabilera eta kode-alternantziaren arteko harremanerako ebidentzia bila: 1) subjektuen kasu-markak, 2) subjektuen komunztadura-morfemak aditz-jokatuetan eta 3) Mariak ekoitzi dituen KAdun esaldiak. KAdun esaldietan, bereziki, ikertu nahi dut ea KAdun esaldietan ere ergatibo kasu-marka eta subjektu eta aditz jokatuen komunztadura mantentzen duen.

4. taulan laburtuta ikus daitekeen moduan, oro har, 798 esaldi identifikatu dira elkarriketa osoan, eta horietatik aditz jokatua dutenak % 93,48 dira (N=744). Gehienetan (% 67,97), subjektua isilduta dago (36), beraz, ezin da kasu-markatzea aztertu. Taulan ikusten denez, subjektua isilduta duten esaldien artean % 61,34 iragankorrak dira eta % 38,66 iragangaitzak.

Kasu-markatzea aztertzeko, aditz jokatua eta ageriko subjektua dutenak (37) aintzat hartu dira, hots, 239 esaldi (horietatik 118 iragankorrak dira, % 49,37). Zuzentasunari begira, esaldi iragankorretan % 77,11ko zuzentasuna dago subjektuaren markatzean (38), gainerakoetan ergatiboa isilduta dago, hau da, *ez-egitezko* hutsak daude (39) % 22,89. Iragangaitzetan, berriz, subjektuen % 100ak absolutibo kasua darama (40), hots, kasu-markatzea zuzena da, eta ez dago *egitezko* hutsik, hots, absolutibo kasua behar duen ergatibodun adibiderik.

(36) “Egon gintzezan ba filan”

(37) “Nik nauk euskaldunberri esaten dautziet”

(38) “A bueno nik suertea aukin noan”

(39) “Ze aite fabriken iteoan behar” (xede subjektua: aitek)


(40) “Nebea dau atzerriko bategaz”

4. taula: Emaizta orokorrak. Iturria: norberak egina.

Esaldiak guztira: 798	Aditz Jokatua: 744 (% 93,48)	Ageriko subj: 239 (% 32,03)	Igkor: 118 (% 49,37)	Zuzen: 91 (% 77,11)
			Igaitz: 121 (% 50,62)	Zuzen: 121 (% 100)
	Isilduta: 507 (% 67,97)	Igkor: 311 (% 61,34)		
		Igaitz: 196 (% 38,66)		
Aditz Jokatugabea: 52 (% 5,52)				

Beraz, 2. irudian ikusten denez, desberdintasun esanguratsua dago ergatibo eta absolutibo diren subjektuen kasu-markatzearen zuzentasunean (% 77,11 vs % 100;  $\chi^2(1) = 26, p < ,0001$ ).

2. irudia: Mariaren zuzentasuna subjektuen kasu-markatzean. Iturria: norberak egina



Subjektuen aditz-komuntadura morfemei dagokienez, aditz jokatuen artean (N=744) 2 adibide egon dira (% 0,26), non Mariak ez duen subjektu-aditz komuntadura zuzena erabili. Subjektu komuntadura urratzen duten adibide bi hauek iragankorrak dira (41) (42), ez dute KARik, eta biek dute ageriko subjektua.

(41) “horrik first/advanced eta proficiency bebai atera zuen”

(xede-adizkia: zauzen/zituen)

(42) “nik naurea iten dogu korriente” (xede-adizkia: dot)

Aztertutako hirugarren alderdia, KA da. Esaldi jokatuaren artean 52 (% 6,97) KAdun esaldi daude (43). Irangaitzen artean % 100 da zuzena absolutibo kasu-markaren erabilera (44) bestalde, iragankorretan, behin bakarrik isiltzen da ergatiboaren marka (45), besteetan espero bezala ageri da (46).

(43) “iten dozu berba *en plan corriente carrerilla no?*”

(44) “pasetan zara *como pedro por su casa da*”

(45) “da beste ahizte bat ateraoan *secretariado*”

(46) “hori kursoa ingure dauriela gobierno vascoak konbalidau”

KAdun esaldien artean ez dut topatu subjektua hizkuntza batean eta predikatua bestean duen adibiderik.

## 6.2. Gramatikaltasun ariketa

Euskara hutsezko gramatikaltasun ariketan baldintza esperimental bakoitzeko zuzentasuna aztertu nuen, 4. irudian ikus daitekeen moduan. Baldintza bakoitzetik 20 esaldi zuzen eta 20 oker zeuden. Batetik, baldintza semantikoaren kasuan, semantikoki zuzenak ziren esaldien % 95 zuzen hartu zituen, baina semantikoki okerrak zirenen % 20 zuzentzat jo zuen (47). Ergatibo baldintza da guztien artean zuzentasun txikiena ageri zuena; izan ere, (48) bezalako ergatibo marka zuzen agertzen zen kasuen % 80tan adierazi zuen zuzen zegoela, eta oker erabilita zegoenetan (49), % 55tan adierazi zuen okerrak zirela. Hau da, ergatibo markaren isiltzea zuten gainontzeko % 45ak zuzentzat eman zituen hiztunak (50).

(47) Igerilekuan aurkitu dut nik txanpona.

(48) Txanoa nik utzi dut etxean

(49) Mugikorra Naiara ekarri zuen atzo

(50) Ni bazkaria prestatu diot lagunari gaur.

Oso bestelako emaitzak ageri dira absolutibo baldintzan. Zuzen zeudenen % 95 jo zituen zuzentzat; eta oker zeuden, hots, absolutibo testuinguruan ergatiboaren *egitezko* hutsak zituzten esaldien % 100 markatu zuen oker moduan (51). Beraz, ariketa honetan ere *ez-egitezko* eta *egitezko* hutsen arteko asimetria ageri da, eta aldea esanguratsua da (akatsak % 45 vs % 0,  $\chi^2(1) = 9,18$ ,  $p < 0,001$ ).

(51) Nik\* atzo oporretara joan nintzen


Azkenik, ergatibo subjektuaren komunztadurari dagokionez, emaitzak zuzentasunetik aldentzen dira, 3. irudian ikusten denez. Zuzen zeudenetatik % 25etan

okertzat hartu zituen, adibidez (52); aldiz, oker zeudenak errazago identifikatu zituen okertzat (% 90) (53).

(52) Lorategia ureztatu duzu zuk gaur.

(53) Eskolatik ekarri zaituztet zuek nik.

3. irudia: Mariaren euskara hutsezko esaldietan zuzentasuna baldintzaka. Iturria: norberak egina.



### 6.3. Onargarritasun juzkuen ariketa

Jarraian, KAdun esaldien onargarritasun ariketako emaitzak deskribatuko dira bai kontrol-taldearenak bai Mariarenak.

4. irudian ikusten denez, kontrol-taldearen kasuan onargarritasun altuena (2,74) lortu zuten euskarazko subjektua duten aditz iragankor eta ergatibo kasu-marka duten esaldiek (54). Horiek ergatiboa isilduta dutenak (55) baino onargariagoak dira (1,76). Wilcoxon testak erakutsi duenez, ezberdintasun hori esanguratsua da ( $p < ,001$ ). Aldiz, subjektua euskaraz egonda gaztelaniazko aditza iragangaitza denean, onargariagoa da (2,63) ergatiboaren kasu-marka isiltzea (56), ergatibo marka (1,49) erabiltzea baino (57). Wilcoxon testaren arabera, ezberdintasun hori ere esanguratsua da ( $p < ,001$ ). 5. taulan ageri dira Wilcoxon testaren araberako alderaketetarako balio estatistiko guztiak. Beraz, datu hauek ere aditzera ematen dute KAdun esaldietan ere ez direla berdin onargariak *egitezko* (1,49) eta *ez-egitezko* (1,76) “hutsak” ( $p < 0,01$ ).


(54) Idazle horrek *ha traído el periódico*.

(55) Idazle hori *ha traído el periódico*.

(56) Mutil hau *ha venido con nosotros*.

(57) Mutil honek *ha venido con nosotros*.

4. irudia: Kontrol-taldearen onargarritasuna juzkuen ariketan



5. taula: Wilcoxon testaren arabera alderaketak baldintzak pareka alderatuta (neurri errepikatuak)<sup>15</sup>.

Wilcoxon testeko emaitzak			Subjektua euskaraz				Subjektua gaztelaniaz			
			Igkor.		Igaitz.		Igkor.		Igaitz.	
			- k	Ø	- k	Ø	- k	Ø	- k	Ø
Subj. eusk.	Igkor.	- k						<	<	
		Ø	<		<		<	<	<	
	Igaitz.	- k	0,001				0,202	0,006	0,001	0,001
		Ø	<		<	<	<	<	<	<
Subj. Gazt.	Igkor.	- k	0,001					<	<	
		Ø	<				<	0,016	0,001	0,001
	Igaitz.	- k							<	<
		Ø								0,001

Gaztelaniazko subjektuak daudenean, onargarritasuna pixka bat apalagoa da oro har. Izan ere, aditza iragankorra denean ergatibo kasu-marka agertzea (1,54) (58) baino onargarriagoa da (2,04) isiltzea (59). Wilcoxon testak erakutsi duenez, ezberdintasun hori esanguratsua da ( $p = ,016$ ). Aditza iragangaitza denean, emaitzak ez dira asko aldatzen; ergatiboaren marka (60) gutxiago onartzen da (1,21) onartuenak diren eta kasu-markarik ez duten esaldiak baino (61) (2,64). Wilcoxon testaren arabera, ezberdintasun hori ere esanguratsua da ( $p <,001$ ).

<sup>15</sup> Esanguratsua beltzez.

(58) *Ese escritorrek* egunkaria ekarri du.

(59) *Ese escritor* egunkaria ekarri du.

(60) *Ese señorak* txakurrarekin etorri da.

(61) *Ese chico* gurekin etorri da.

Oro har, esaldi guztiak aintzat hartuta, 10 parte-hartzaile hauen emaitzek aditzera ematen dute euskarazko subjektua eta gaztelaniazko predikatua duten esaldietan kasu-markatzea morfologikoa hein handi batean euskararen arauen arabera dela (iragankorretan *-k* markadunak hobesten dira, eta iragangaitzetan *-k* marka gabekoak). Aldiz, gaztelaniazko subjektua eta euskarazko predikatua duten esaldietan markatze morfologikoa bestelakoa da: iragankorretan zein iragangaitzetan *-k* marka gabekoak hobesten dira. Hortaz, onargarritasun ariketa honen arabera, badirudi kasu-markaren ezarpena ez duela aditz jokatu dagoen hizkuntzaren arauen arabera, baizik eta subjektua zein hizkuntzatan dagoen, horren arauak gailentzen direla.

Mariaren emaitzak bestelakoak dira, 5. irudian ikus daitekeen moduan. Kontrol-taldearekin alderatzean ezberdintasunik nabarmenena euskarazko subjektu eta aditz iragankorrekin ageri da: Mariarentzat berdin onargarria da (2,12, bietan) subjektuan ergatibo marka agertzea (62) zein isiltzea (63). Aditza iragangaitza denean, aldiz, ongarriagoa da kasu-markarik ez agertzea (64) ergatibo marka erabiltzea (65) baino (2,5 vs 1,62).<sup>16</sup>

(62) Gizon horrek *ha comprado un pastel*.

(63) Gizon hori *ha comprado un pastel*.


(64) Kirolari hori *ha subido al podium*.

(65) Kirolari horrek *ha subido al podium*.

---

<sup>16</sup> Partaide bakarra izanik, ezinezkoa da item kopuru honekin estatistika inferentziala baliatzea.

5. irudia: Mariaren KAdun esaldietako onargarritasun maila zenbait baldintzetan



Bestalde, subjektua gaztelaniaz dagoenean eta euskarazko predikatua iragankorra denean, onargarritasun handiena (2,87) erakusten dute ergatibo markarik ez duten esaldiek (66). Horiek, ergatiboaren marka dutenak (67) baino onargarriagoak dira (1,00). Aditza iragangaitza denean, emaitzak oso antzerakoak dira. Ergatibo marka erabiltzearen (68) onargarritasun maila (1,00) nabarmen txikiagoa da isiltzearen (69) onargarritasuna baino (2,62).

(66) *Ese hombre* pastel bat erosi du.

(67) *Ese hombrek* pastel bat erosi du.


(68) *Ese deportistak* podiumera igo da.

(69) *Ese deportista* podiumera igo da.

Beraz, Mariaren kasuan ez dirudi euskal gramatika sistemaren araberako kasu-markatzea darabilenik euskarazko subjektua duten KAdun esaldietan, eta horrek bereizten du nagusiki partaide hau beste 10 kontrol-taldekoengandik.

Bestalde, kontuan hartuta materialetan DS subjektuak eta izenordainak kontrolatu zirela, alderaketa orokor bat egin dut bi horien artean onargarritasun alderik ikusten den jakiteko, bai euskaraz, bai gaztelaniaz. 6. irudiak erakusten du baldintza guztietan, subjektu posizioan DSak onargarriagoak direla izenordainak baino. Eta ezberdintasun hori esanguratsua da 5 baldintzetan (ikus 6. taulan Wilcoxon testeko emaitzak zehaztasun estatistikoetarako).

6. irudia: Parte-hartzaile guztien onargarritasuna subjektu motaren arabera



6. taula: p estatistikoaren balioa baldintzaka (Wilcoxon).

		Baldintzak	P-ren balioa
Subj. euskaraz	Igkor.	- k	0,003
		∅	0,854
	Igaitz.	- k	0,014
		∅	0,001
Subj. gazteleraz	Igkor.	- k	0,111
		∅	0,007
	Igaitz.	- k	0,205
		∅	0,003

## 7. Eztabaida

Master amaierako lan honen helburu nagusia izan da KA eta ergatiboaren arteko harremana ikertzea. Horretarako, H1 euskara duen Mariaren kasu-ikerketara bat izan da abiapuntu nagusia. Hurbilketa psiko-soziolinguistikoa hartuta, hiru ariketa konbinatu ditut ebidentzia enpirikoa lortzeko honako 3 helburu hauekin: 1) deskribatzea nolakoa den ergatiboaren erabilera (ekoizpena zein oharrena) Mariarengan kualitatiboki eta kuantitatiboki; 2) hiztun horrengan ergatiboaren eta KAren erabileran eragina izan dezaketen faktore psiko-soziolinguistikoak arakatzea. Eta 3) subjektu eta predikatuen arteko alternantzia duten euskara-gaztelania esaldietan kasu-markatzearen ezaugarri linguistikoak deskribatzea bai kasu-azterketako parte-hartzailearekin bai heldu osasuntsuen taldetxo batekin.

Lehen ikerketa galdera zen zer-nolako ezaugarriak zituen ergatiboaren erabilerak H1 euskara duen Mariarengan. Eta horren barruan, zehatzago, hiru azpigaldera eta hipotesi planteatu ditut. Lehena zen ea ergatiboaren erabilera euskal psikolinguistikako lanetan aurkitu diren joerekin bat zetozen. Nire hipotesia zen literaturan ikusi bezala,



asimetria bat egongo zela kasu-markatzearen eta aditz-morfologiaren artean, eta arazoak agertzekotan kasu-morfologian agertzea eta *ez-egitezko* hutsak izatea nagusiki. Ekoizpeneko zein gramatikaltasun ariketako emaitzek nire hipotesia berretsi dute oro har. Ekoizpen erdiespontaneoan ageri diren huts bakarrak ergatibo testuinguruetan ageri dira eta ergatibo kasu-markaren isiltzeari dagozkio, alegia, *ez-egitezko* hutsak dira (% 23). *Egitezko* hutsik ez da ageri Mariaren ekoizpen sasi-espontaneoan. Emaitza horiek bat datoz kualitatiboki haur (Ezeizabarrena *et al.*, 2009; Duguine & Köpke, 2019; Huarte, 2022) zein helduen ekoizpenean (Rodriguez-Ordoñez, 2020) aurkitutakoekin. Akats kopuruari erreparatuta, Mariaren isiltzeak gehiago dira Gernikako H1 hiztun helduenak (% 16) baino, eta ondoz ondoko elebidunen (% 29,4) emaitzetara hurbiltzen da (Rodriguez-Ordoñez, 2020).

Bestalde, Mariaren ekoizpenetan ez da apenas akatsik ageri ergatiboaren aditz-komuntadura morfemetan. Halaz, lan honek beste ebidentzia bat gehiago eskaintzen du ergatibo markatze bien arteko asimetriarako (cf. Ezeizabarrena, 2012).

Horrezaz gain, onargarritasun ariketan ere emaitza horiek berretsi dira. Deigarriena gertatu dena da ergatiboaren isiltzea zuten adibideak ez-onargarrizat hartzeko zailtasuna (% 55). Ematen du zailtasuna duela ergatibo kasu-marka ez daramatenak txartzat hartzeko, ez ordea absolutibo testuinguruan ergatibodun subjektuak akastuntzat jotzeko (% 100 zuzentasuna). Emaitza horiek onargarritasun ariketak egin dituzten lanekin alderatzean, badirudi Mariaren jokabidea gertuago dagoela H2 goiztiarretatik H1 hiztunetatik baino, azken hauek oker gutxixeago egiten baitituzte (% 80 vs. % 55ko zuzentasuna Mazkieranenean, 2022 eta % 85 Zawiszewski *et al.*-en, 2011). Ariketa horretan bertan, Mariaren kasuan ez da akats nabarmenik ageri subjektu-aditz komuntadura baldintza duten esaldietan, okerrekotzat hartu ditu. Ariketa horretan kontrol egituratzat hartzen diren baldintza semantikoetan, espero ez ziren zenbait oker agertu dira (% 20). Akats horiek zehaztasunez aztertzean ikusi dut “oker” gisa sortutako batzuk ez direla hain ezohikoak semantikoki, eta horregatik ulertzekoa da Mariak zuzentzat jotzea.

Mariaren ergatiboaren erabilera deskribatzen amaitzeko, KAdun esaldiak aztertuta ere ikusten dena da Mariak ez duela kontrol-taldearen joera erakusten euskarazko subjektua eta gaztelaniazko predikatu iragankorra duten esaldietan, kasu-marka agertzea edo ez agertzea berdintsu onartzen baitu, kontrolek ez bezala (kasu-marka agertzea hobesten dute hauek). Zentzu horretan, Mariaren jokabidea ez dator bat euskara-frantsesa

ekoizpen librea aurkitu denarekin, nahikoa sistematikoki ageri baitzen ergatiboa (Epelde eta Oyharçabal, 2017, 2020).

Bestalde, 1.2. hipotesian aurreikusten nuen ergatiboaren kasu-marka isiltzea KAdun esaldietan nabarmenagoa izatea euskara hutsezko esaldietan baino. Ekoizpen sasi-espontaneoan ez dut ebidentzia nahikorik hipotesi hau baieztatzeko edo ezeztatzeko. Edozein kasutan, uste dut aurrera begira aztertzeko zerbait dela. KAdun esaldien onargarritasuna ikusita (antzeko onargarritasuna ergatibodun zein ergatibo kasu-markarik gabeko euskal subjektuekin), pentsatuko nuke Mariaren kasuan are gehiago isilduko lukeela (ekoizpenean) edo onartuko lukeela (juzkuetan) ergatibo isiltzea KAdun esaldietan.

Hurrengo hipotesia zen faktore psiko-soziolinguistikoek hiztunaren erabileran eta gaitasunean eragina zutela. Elkarrizketa glotobiografikoan jasotako datuen arabera, esango nuke hipotesi hori baieztatzeko ebidentzia eskaini duela lan honek. Mariak euskara etxean jaso zuen, eta euskaraz gaitasun handia zuela pentsa daiteke haren erabilera (familia, lagunak, “lehen hitza”) eta euskaraz jasotako hezkuntza formala ere kontuan izanda. Dena dela, haren hezkuntza formala nagusiki gaztelaniaz izatea eta lan munduan gaztelania nagusi izateak pentsarazten digu eragina izan duela bere euskararen erabileran, bereziki ahozko ekoizpenean. Azkenaldian Mariaren erabileran gaztelania hein batean nagusitu zaio euskarari; Mariak berak aitortu duenez gaztelania gehiago ekoizten du eta KA gehiago egiten du. Hortaz, pentsa daiteke orain arte aztertu diren H1 hiztunek baino ergatibo kasu-markaren isiltze gehiago egitea, ergatibo kasu-marken urratze gutxiago identifikatzea eta KAdunetan beste H1 euskaldunek ez bezala jokatzeko *attrition* edo hizkuntza-higaduraren ondorio izatea (Bolonyai, 2009; Köpke & Schmid, 2004).

Köpkek (2004) dioenez, denbora luzez H2 H1 baino gehiagotan erabiltzen bada egunerokoan, aukera asko daude H1ak higaduraren sufritzeko, eta euskararen kasuan, beraz, ez da harritzekoa euskararen erabilera gutxitzeak Mariarengan “zaila” gertatzen den ezaugarri gramatikal horren erabileran eragitea, Tardientak (2021) euskara erabiltzeari utzi zioten gazte batzuen ergatibo kasu-markaren isiltzea azaltzeko proposatu zuenez. Ergatiboaren isiltzea higadura gramatikalaren ondorio izatea espero izatekoa da kontuan izanda higaduran ohikoa da H1eko ezaugarri morfosintaktikoen sinplifikazioa eta H2ko ezaugarri morfosintaktikoak H1ean agertzea (Gallo *et al.*, 2021), adibidez, kasu morfologikoak (Pavlenko, 2000). Gaztelaniazko kasu-sistema eta euskarazkoa

ezberdinak dira, eta baliteke H2ko subjektuen markatze sistema H1ean aplikatzearen ondorio izatea baita Mariaren kasuan ere.

Ildo berean, Mariak aipatzen duen KAren areagotzea ere higaduraren ezaugarri izan daiteke Turian eta Altenberge (1991) proposatu bezala. Hori bat dator euskal elebidun gazteengan KArako aipatzen dituzten arrazoiekin; tartean, gaitasun falta (Pérez, 2020; Amorrortu *et al.*, 2019). Halaz, hizkuntza-higadura gertatzeko arrazoien artean (adina, erabilera, hezkuntza-maila eta jarrera), Mariaren kasuan badirudi erabilerari lotuta egon litekeela, baina ez besteei, kontuan izanda Maria heldua dela, euskararen alfabetatua dela (ikasketa formala gaztelaniaz egin arren) eta oso jarrera proaktiboa duela.

Lanaren bigarren helburuari lotuta, nire bigarren ikerketa-galdera zen nolakoa den ergatiboaren erabilera euskara-gaztelania KAdun esaldietan, zer murriztapen gramatikal dauden kasu-markatzeari dagokionez. Kasu-morfologiari begira, euskara hutsezko esaldiek eta KAdun esaldiek murriztapen berberak zituztela aurreikusten nuen. Kontrol-taldearen emaitzek erakutsi dute baietz, oro har, subjektuaren hizkuntzaren sistema morfologikoaren arabera dela subjektu horrek hartzen duen marka morfologikoa subjektu eta predikatuaren arteko KAdun esaldietan. Alegia, euskarazko subjektuek predikatua gaztelaniaz badute ere, ergatiboaren kasu-markarekin hobesten dira predikatu iragankorretan, eta ergatiboaren kasu-markarik gabe (absolutiboa bezala) predikatu iragangaitzetan. Aldiz, gaztelaniazko subjektuetan ageriko kasu-markarik gabekoak hobesten dira predikatu iragankor zein iragangaitzetan. Emaitza horiek bat datoz Epelde eta Oyharçabalek (2017, 2020) euskara-frantsesa corpusean aurkitu zutenarekin. Beraz, badirudi, *The Null Theory*-k aurreikusi bezala (Chan, 2009), gramatika arauak urratzen ez dituzten egiturak hobesten direla. KAren murriztapen gramatikalak azaltzeko proposatu den MLF deritzonaren arabera (Myers-Scotton, 1993a), esperoko litezke predikatuen hizkuntzaren arabera izatea subjektuetan hobesten den kasu-sistema, baina ez da hori kontrol-taldean aurkitu duguna.

Kasu-azterketako Mariaren emaitzak bestelakoak dira euskarazko subjektua duten KAdun esaldien kasuan, baina lehenago esan bezala, hizkuntza-higadurari lotuta azal litezke emaitza horiek.

Azkenik, beste hizkuntza-bikote batzuetan aurkitu diren murriztapen gramatikalak ageri diren aztertu nahi izan dugu euskara-gaztelania KAdun esaldietan. Gure aurreikuspena zen baietz, hala izango zela, eta hori da aurkitu duguna mota ezberdinetako subjektuen onargarritasuna alderatzean. Alegia, lan honetan ere frogatu dugu DSak

izenordainak baino onargarriagoak direla, testuinguruak testuinguru (Bellamy *et al.*, 2022; Koronkiewicz, 2014).

## 8. Ondorioak eta aurrera begirakoak

Master amaierako lan honek datu enpiriko berriak eskaintzen ditu euskara-gaztelania KAren eta ergatiboaren arteko harremanaren inguruan. Hurbilketa psiko-soziolinguistikoak aukera eman du Mariaren erabilera zehaztasunez deskribatzeko eta horretan eragina izan dezaketen faktore psiko-soziolinguistikoak arakatzeko.

Mariaren ergatibo erabileran aurreko lanetan ageri diren antzekotasun kualitatiboak aurkitu dira: ergatiboaren bi gauzatzeen arteko asimetria (arazoa kasu-marketara mugatuta), eta kasu-marketan *ez-egitezko* hutsen nagusitasuna (*egitezko* hutsik gabe), bai euskara hutsezkoetan eta are nabarmenago KAn. Areago, kuantitatiboki Mariaren huts kopurua pixka bat urruntzen da H1 hiztunengan aurkitu denarekin, eta gehiago gerturutzen da H2 gozitiarren emaitzetara. Mariaren ibilbide linguistikoa zehaztasunez aztertuta, proposatu dut euskara nagusi izatetik gaztelania bere erabileran nagusi izatera pasatzeak ondorioak izan zitzakeela bere euskararen erabileran. Hori dela eta, Köpke eta Schmidten (2004) eta Bolonyairen (2009) ustearekin bat eginez, ergatiboaren galera, Maria bere H1aren erabilera urriagatik, *attrition* delako fenomenoaren adierazgarritzat dela proposatu dut. Ondorioz, ergatiboa isiltzea hizkuntza-higaduraren ondorio izan daitekeela proposatzen dut.

Beraz, lan honek euskararen ergatiboa elementu gramatikal zaugarria delako beste ebidentzia bat gehiago ekartzen du psikolinguistikara (Ezeizabarrena, 2012; Zawiszewski *et al.*, 2011; Huarte, 2022),.

Bestalde, lan honek aukera eman du lehengo euskara-gaztelania KA duten esaldietan kasu-markatzearen inguruko murriztapen gramatikaletara hurbiltzeko. Emaitzek erakutsi dute H1 heldu osasuntsuekin osatutako kontrol-taldeak euskarazko subjektua eta gaztelaniazko predikatua duten esaldietan, oro har, euskararen kasu-morfologia darabilela; iragankorretan *-k* markadunak hobesten dira eta iragangaitzetan *-k* marka gabekoak. Eta gaztelaniazko subjektua eta euskarazko predikatua duten esaldietan markatze morfologikoa bestelakoa da: iragangaitzetan zein iragankorretan *-k* marka gabekoak hobesten dira, hots, sistema nominatibo-akusatiboetan bezalako markatzeak hobesten dira. Hortaz, onargarritasun ariketa honen arabera, badirudi kasu-markaren ezarpena ez dela aditz jokatur dagoen hizkuntzaren arauen araberakoa, baizik

eta subjektua zein hizkuntzatan dagoen. Horrek inplikazio argiak ditu murriztapen gramatikalak azaltzeko proposatu diren teoretarako.

Halaber, beste hizkuntza-komunitate batzuetan (Bellamy *et al.*, 2020 eta Koronkiewicz, 2014) aurkitu diren murriztapen gramatikal batzuk euskaran ere ageri direla ikusi dugu, besteak beste, DS subjektuen nagusitasuna izenordainen aldean. Beraz, ebidentzia interesgarria da hau murriztapen gramatikalen eta gatazka guneen inguruan dauden eztabaidetarako.

Aztertu gabe utzitako nire hipotesi bat zen errazagoa zela isiltzea ergatiboaren marka KAdunetan euskara hutsezko esaldietan baino. Tamalez, ez dut datu nahikorik lortu hipotesia baieztatzeko edo ezeztatzeko, nahiz eta behin-behineko datu batzuk izan, uste dut emaitza enpiriko, zientifiko eta fidagarri bat emateko nahikoa ez direla. Horrez gain, ikertu ezin izan dudan beste arlo bat izan da ekoizpen erdiespontaneoko KA. Hau da, elkarrizketako ekoizpenean ez da egon subjektua hizkuntza batean eta predikatua beste batean zegoen adibiderik; ondorioz, hori ezin izan dut alderatu onargarritasun juzkuetako adibideekin eta emaitzekin. Aurrera begira, interesgarria izango litzateke galdera horiei erantzuteko ebidentzia enpiriko berria biltzea.

Ikerketa lan honek orain arte ia sakondu eta arakatu ez diren bi ikerlerro uztartu ditu: KA eta ergatiboaren arteko harremana, emaitza berritzaileak eskainiz. Horrez gain, etorkizuneko lanei begira, lan honek nolabaiteko oinarri batzuk finkatzeaz gain, alor honetako ikertzaileei bidea zabaltzen lagunduko dielakoan nago. Bukatze aldera, interesgarria izango litzateke lan honek erantzunik gabe uzten dituen galdera edo hipotesiak etorkizun batean jorratzea; honela, berria den ikerlerro hau osatzen eta aberasten jarraitzeko.

## 9. Erreferentziak

- Albizu, P. (2009) Euskararen kasu-sistema ergatiboa ala ergatiboak? Ergatibotasunaren azterketa dialektologiko baterako lehen urratsak. *Lapurdum*, (13), 7-30.
- Amorrortu, E., Ortega, A., Goirigolzarri, J. eta Urla, J. (2016). *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*. Deustuko Unibertsitatea.
- Amorrortu, E., Ortega, A., eta Goirigolzarri, J. (2019). Euskal hiztun berri gazteak muda-prozesuan: ekintza-ikerketa baten behin-behineko emaitzak. In Santazilia, E., Krajewska, D., Zuloaga, E. & Ariztimuño, B. (Ed.), *Fontes Linguae Vasconum 50 urte: ekarpen berriak euskararen ikerketari=nuevas aportaciones al estudio de la lengua vasca* (47-61. Or.). Gobierno de Navarra.
- Bellamy, K., Stadthagen-Gonzalez, H. & Parafita, M.C. (2022). Él Code-Switches More Than tú y yo: New Data for the Subject Pronoun-Verb Switch Constraint. *Languages*, 7 (22),1-13.
- Bolonyai, A. (2009). Code-switching, imperfect acquisition, and attrition. In B. E. Bullock and A. Toribio (Ed.), *The Cambridge handbook of linguistic code-switching* (253–269). Cambridge University Press.
- Bullock, B. E., & Toribio, A. J. (Ed.), (2009). *The Cambridge handbook of linguistic code-switching*. Cambridge University Press.
- Congdon, S. (1980ko abuztuak 10). The Battle of Bilingual Education. *The Washington Post*. <https://www.washingtonpost.com/archive/entertainment/books/1980/08/10/the-battle-of-bilingual-education/9a7cc4e1-f779-42d8-ae95-31c1aae23329/>
- Cook, V. (2003). *Portraits of the l2 user: Background to the second language user*. Multilingual Matters.
- Chan, B. H-S. (2009) Code-switching between typologically distinct languages. In B. E. Bullock and A. Toribio (Ed.), *The Cambridge handbook of linguistic code-switching* (182–198). Cambridge University Press.
- Chomsky, N. (1991), Linguistics and cognitive science: Problems and mysteries. In Asa Kasher (Ed.), *The Chomskyan turn* (26-53). Blackwell.
- Du Bois, I. (2009) Language attrition and code-switching among US Americans in Germany. *Stellenbosch Papers in Linguistics PLUS*, 39, 1-16
- Duguine, I. & Köpke, B. (2019). Processing Strategies Used by Basque-French Bilingual and Basque Monolingual Children for the Production of the Subject-Agent in Basque. *Linguistic Approaches to Bilingualism*, 9 (4-5), 1514-1541.
- Dixon, R.M.W. (1994) *Ergativity*. Cambridge University Press.
- Epelde, I. eta Oyharçabal, B. (2010). Perpaus barneko hizkuntza lerratzeak (HL) ekialdeko euskal elebidunetan. *ASJU* (52), 55-64.
- Epelde, I. eta Oyharçabal, B. (2017). Ergatiboaren erabilea euskaldunek egiten dituzten perpaus barneko hizkuntza lerraketetan. *Lapurdum*, (20), 185-203.
- Epelde, I., & Oyharçabal, B. (2020). Ergative marking in Basque-Spanish and Basque-French code-switching. *Zeitschrift für Katalanistik*, 33, 77-98.
- Etxebarria, I. (2018). *Euskerazaleak. 50 urte euskararen alde 1967-2017*. Labayru Fundazioa.
- Fernandez, B., Laka, I. (2021). Euskararen bereizgarri orokorrak. In Euskaltzaindia (Ed.) *Euskararen Gramatika* (3-32). Euskaltzaindia.
- Ezeizabarrena, M. J. (1996). *Adquisición de la morfología verbal en euskera y castellano por niños bilingües*. EHU-UPVko Argitalpen Zerbitzua.
- Ezeizabarrena, M.J., Larrañaga, M.P. (1996). Ergativity in Basque: a problem for language acquisition? *Linguistics*, 34, 955-991.

- Ezeizabarrena, M. J., Manterola, I., eta Beloki, L., (2009). “Euskara H2 goiztiarraren ezaugarrien bila: adizkiak eta gramatika kasuak haurren ipuin-kontaktetan”. *Euskara* 54, 639-681.
- Ezeizabarrena, M. J., (2012). The (in)consistent ergative marking in early Basque: L1 vs. child L2. *Lingua* 122, 303-317.
- Gallo, F., Bermudez-Margaretto, B., Shtyrov, Y., Abutalebi, J., Kreiner, H., Chitaya, T., Petrova, A., Myachykov, A. (2021). First Language Attrition: What It Is, What It Isn't, and What It Can Be. *Frontiers in Human Neuroscience*, (15), 1-20.
- Garcia, R. (1989 abuztuak 18). Bilingual Education Means Equal Opportunity. *The New York Times*. <https://www.nytimes.com/1989/08/18/opinion/1-bilingual-education-means-equal-opportunity-513289.html>
- Gardner-Chloros, P. (2009). Sociolinguistic factors in code-switching. In B. E. Bullock and A. Toribio (Ed.), *The Cambridge handbook of linguistic code-switching* 97-114. Cambridge University Press.
- Gaztelu, E.P., Zulaika, E. (2016). Adierazgarritasun zantzuak Euskal gazteen txatetan 😊. *Gogoia*, (14), 105-130.
- Halmari, H. (1993a). Code-switching strategies as a mirror of language loss: A case study of two child bilinguals. In D. Staub & C. Delk (Ed.). *The Proceedings of the Twelfth Second Language Research Forum. Papers in Applied Linguistics* 200-215.
- Holmer, A. (1999). An active analysis of Basque ergativity. *Fontes Linguae Vasconum*, 31 (81), 189-226.
- Huarte, M. (2022). Euskararen jabekuntza testuinguru soziolinguistiko ezberdinetan: zer esaten diguten haurren testuek kasu gramatikalen erabilerari buruz. *Fontes Linguae Vasconum (FLV)*, (134), 415-438.
- Hughes, C. E., Shaunessy, E. S., Brice, A. R., Ratliff, M. A., & McHatton, P. A. (2006). Code switching among bilingual and limited English proficient students: Possible indicators of giftedness. *Journal for the Education of the Gifted*, 30 (1), 7-28.
- Ibarra, O. (2011). Sobre estrategias discursivas de los jóvenes vascohablantes: causas que motivan el cambio de código. *Oihenart: cuadernos de lengua y literatura*, (26), 277- 298.
- Iriondo, A. (2017). Kode-alternantzia elebidun gazteetan: DS nahasiak. *Gogoia*, (16), 25-56.
- Kasares, P. (2014). *Euskaldun hazi Nafarroan: Euskararen belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*. Euskaltzaindia-Real Academia de la Lengua Vasca.
- Köpke, B. & Schmid, M.A. (2004). Language attrition: The next phase. In M.S. Schmid, B. Köpke, M. Keijzer & L. Weilemar (Ed.), *First language attrition: Interdisciplinary perspectives on methodological issues* 1-43. John Benjamins.
- Köpke, B. (2004). Attrition is not a unitary phenomenon: on different possible outcomes of language contact situations. In *Proceedings from the Second International Symposium on Bilingualism, Bilingual Socialization and Bilingual Language Acquisition*, Vigo, 1331–1347.
- Koronkiewicz, B. (2014). *Pronoun Categorization: Evidence from Spanish/English Code-Switching*. [Tesia, University of Illinois].
- Koronkiewicz, B. (2020). Subject-predicate code-switching: Testing the need of a matrix language through embedding. In Morales-Font, A.; Ferreira, M. J.; Leow, R. P.; Sanz, C. (Ed.), *Hispanic Linguistics: Current issues and new directions* (249-264). John Benjamins.
- Labayru Fundazioa (2017ko maiatzak 17). *Euskerazaleak, 50 urte euskerea hauspotzen*. [Bideoa]. Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=1Q5NpoQOuR8>

- Laka, I. (1990). *Negation in syntax. On the Nature of Functional Categories and Projections*. [Tesia, Massachusetts Institute of Technology].
- Laka, I. (2002). Ergatiboa definitzen: lehenengo saioa gramatika sortzailean. *ASJU* (44), 411-424.
- Lantto, H. (2014). Code-Switching, swearing and slang: The colloquial register of Basque in Greater Bilbao. *International Journal of Bilingualism*, 18 (6), 633-648.
- Lantto, H. (2015). *Code-switching in Greater Bilbao: A bilingual variety of Colloquial Basque*.
- Lantto, H. (2018). New Basques and code-switching: Purist tendencies, social pressures. In *New speakers of minority languages*, 165-187. Palgrave Macmillan.
- López, L. (2020). Case, Concord and the Emergence of Default. *Languages* 5 (12), 1-40.
- Wei, L. (2013). Conceptual and Methodological Issues in Bilingualism and Multilingualism Research. In Bhatia T. K., William C. R. (Ed.), *The Handbook of Bilingualism* (26-53). Blackwell Publishing Ltd.
- MacSwan, J. (2005). A minimalist Approach to Intrasentential Code-Switching. *Rivista di Linguistica*, 17 (1), 55-92.
- MacSwan, J. (2007). Code Switching and Grammatical Theory. In Bhatia T. K., William C. R. (Ed.), *The Handbook of Bilingualism* (323-351). Blackwell Publishing Ltd.
- Mazkieran, O. (2022). *Ergatiboaren oharrena euskara-gaztelania elebidun gaztetxoengan*. [Master Amaierako Lana, UPV/EHU].
- Meisel, J. M. (2007). Child second language acquisition or successive first language acquisition? *Arbeiten zur Mehrsprachigkeit-Working Papers in Multilingualism*, 33-64.
- Muysken, P (2000). *Bilingual speech: A typology of code-mixing*. Cambridge University Press.
- Myers-Scotton, C. (1993a). *Duelling Languages: Grammatical Structure in Code-Switching*. Clarendon Press.
- Ortiz de Urbina, J. (1989). *Parameters in the grammar of Basque: A GB approach to Basque syntax*. De Gruyter Mouton.
- Parafita Couto, M.C., Munarriz, A., Epelde, I., Oyharçabal, B. Deuchar, M. (2015b). Gender conflict resolution in Spanish-Basque mixed DPs. *Bilingualism: Language and Cognition*, 19 (04), 834-853.
- Pavlenko, A. (2000). L2 influence on L1 in Late Bilinguals. *Issues in Applied Linguistics*, 11 (2), 175-205.
- Pérez, M. (2022). *Kode-alternantziaren erabilera eta jarrerak euskara-gaztelania elebidun gazteengan*. [Master Amaierako Lana, UPV/EHU].
- Poplack, S. (1980) Sometimes I'll start a sentence in Spanish y termino en español: toward a typology of code-switching. In Li Wei (Ed.), *The bilingualism reader* (221–256). Routledge.
- Rodriguez-Ordoñez, I. (2020) New speakers of Basque: a Basque-Spanish contact approach. In Oñederra, M.L. eta Igartua, I. (Ed.), *Linguistic Minorities in Europe Online*. Southern Illinois University Carbondale.
- Salaburu, P. (1992). Euskara, hizkuntza ergatiboa ote da? In *Luis Villasanteri omenaldia*. (417-433). Euskaltzaindia.
- Soziolinguistika Klusterra (2022). *Hizkuntzen Erabileraren Kale-neurketa: Euskal Herria 2021*.
- Tardienta, U. (2021). *Gazte elebidunen euskara gaitasunak, hizkuntza ohiturak kontuan harturik*. [Gratu Amaierako Lana, UPV/EHU].
- Treffers-Daller, J. (2009). Code-switching and transfer: an exploration of similarities and differences. In B. E. Bullock and A. Toribio (Ed.), *The Cambridge handbook of linguistic code-switching* (58–75). Cambridge University Press.



- Zawiszewski, A., Gutierrez, E., Fernandez, B., & Laka, I. (2011). Language distance and non-native syntactic processing: evidence from event-related potentials. *Bilingualism Language and Cognition*, 14 (3), 400–411.
- Zentella, A.C. (1997). *Growing up bilingual: Puerto Rican children in New York*. Blackwell.

## 10. Eranskinak

### 10.1. Elkarrizketako gidoia

Iturria: Kasares (2014) eta Pérez (2022) kode-alternantziari buruzko galderetarako:

- Berriemailearen datuak:
  - Izen-abizenak:
  - Sorteguna:
  - Sorlekua:
  - Adina:
  - Ikasketak:
  - Lanbidea:
  - Osatu duen familia:
- Haurtzaroa:
  - Zein ziren etxeokak, ahaideak, non bizi, gurasoen jatorria, lanbidea, eta egiten zuten hizkuntza haien artean. Euskaraz bai/ez: zergatik?
  - Hizkuntza eskolan, kalean, lagunekin, eguneroko bizimodua (herrikoekin –dendan, elizan, kalean...– ere euskaraz?)
  - Gurasoak zein hizkuntza zeki(zki)ten: zein hizkuntza erabili egunerokoan?
  - Neba-arrebekin zein hizkuntzatan? Zein hizkuntza zekizkiten? Mantendu da txikitik erabiltzen zenuten hizkuntza?
- Gaztaroa:
  - Eskola bukatuta lanera? Bertan ze hizkuntza?
  - Lagunekin/bikotearekin/etxean ze hizkuntza? Atzerritarren bat zegoen?
  - Gaztaroko harremanak, orduko bizitza herrian zein hizkuntzatan?
- Familia berria:
  - Jaioterrian bizi? Nora joan bizitzera?
  - Hizkuntza politikak (hitz egin zenuten nola hezi umea? Adostasunik? Euskaraz, gaztelania, akademiara apuntatu...?)
  - Eskolatu aurretik seme-alaben zaintza (haurtzainak/ aitita-amamak/haur eskola/ izeko-osabak...) zein hizkuntzatan?
  - Eta gero etxeko (eta familiako arteko) hizkuntza erabilera (euskaraz bai/ez. Zergatik?):
  - Amak seme-alabekin zein hizkuntza? Aitak seme-alabarekin zein hizkuntza? Eta seme-alabak erantzun zein hizkuntzatan?
    - Seme-alabak aitabitxi-amabitxirekin?
    - Seme-alabak aitita-amamarekin?
    - Seme-alabak izeko-osabekin?
    - Seme-alabak lehengusu-lehengusinekin?
  - Etxeko eguneroko hizkuntza? (telefonoz, erosketak egiterakoan, oharrak egiterakoan, WhatsApp-a...)
  - Nola planteatu zenuten umearen hizkuntza ingurumena?
- Zer uste duzu hizkuntzen inguruan? Txikitatik hobe ikastea?
- Seme-alabaren eskolan beste gurasoekin zein hizkuntza?
- Seme-alabaren aisialdiko aktibitateetan (futbola, igeriketa, dantza...) ze

hizkuntza?

- Seme-alabaren eskolan beste gurasoekin zein hizkuntza?
- Seme-alabaren tutorearekin zein hizkuntza? Pertsona berriak sartu dira familian euskararik ez dakitenak?
- Familiaren harremanak herrian (ahaideak/ auzolanak/ lagunak...)
- Aisialdia, nola? Senarrak, nola? Emazteak, nola? Familia osoak, nola?
- Hizkuntza teknologiak eta kultura kontsumoa familian:
  - Hedabideak: prentsa, irratia, telebista...
  - Internet: WhatsApp, emailak...
  - Liburuak, musika, pelikulak...
- Motibazioa/ jarrera kritikoa:
  - Euskara eta gaztelania non ikasi dituzu (non eta nola):
  - Zer balio daukate euskarak eta gaztelaniak zuretzako?
  - Euskara batua edo dialektoren bat egiten duzu?
    - (Nola deskribatu: naturala/ ez-naturala, beste edozeinen pareko, zerbait falta zaiola uste duzu?)
  - Gaztelania estandarra edo dialektoren bat erabiltzen duzu?
    - (Nola deskribatu: naturala/ ez-naturala, beste edozeinen pareko, zerbait falta zaiola uste duzu?)
  - Lehen hizkuntza eta hizkuntza gaitasuna (zein dakien, zeinetan moldatu ondoen, agiririk...)
  - Eroso zaude zure hizkuntza mailarekin?
  - Gaur egun, norekin hitz egiten duzu euskaraz eta norekin beste hizkuntza batean?
  - Euskararen inguruko zer interes, zer hautu, zer jokaera...
  - Seme-alabek euskararekin egiten duten harremanaz zer aurreikuspen, zer itxaropen duzu?
- Hizkuntzen Artean 'saltoka' zabiltza? (Eusk-gazt Artean)
  - Bai? Norekin? Noiz? (lanean/ etxean/ familian/ lagunekin/ eremu formalean...)
  - Zergatik hori?
  - Zein da zure jarrera KArekiko?
  - Gai zara ez egiteko?
  - Euskaratik gaztelaniara? Edo gaztelaniatik euskarara?

## 10.2. Onargarritasun juzkuen ariketa

### Juzkuen ariketa

Ni Endika Uriarte naiz eta master amaierako lana egiten nabil eta zuen laguntza behar dut. Hemen esaldi batzuen zerrenda dago. Kalifikatu 1etik 4ra. Jarri 1 oso txarra bada eta ez bazenu inoiz erabiliko. Jarri 4 zuretzat ondo badago eta zuk erabiliko bazenu (kaletik entzuten baduzu eta onargarria bada zuretzat). Adi, esaldi batzuk beste batzuk baino 'txarrago' egon ahal dira.

Soy Endika Uriarte y estoy haciendo el trabajo fin de máster, y para ello necesito vuestra ayuda. Aquí encontrarás unas oraciones. Calificalas del 1 al 4. Siendo 1 el que te suena muy mal y nunca jamás la usarías; y 4, si te suena bien o razonable y si la podrías usar (o si la escuchas por la calle, si tú como oyente la aceptarías). Atento, algunas oraciones pueden estar 'peor' que otras.

1. La deportista podiumera igo da \*

1	2	3	4
---	---	---	---

2. Ese chico gurekin etorri da \*

1	2	3	4
---	---	---	---

3. Ese escritor berandu iritsi da \*

1	2	3	4
---	---	---	---

4. El perro zelaira joan da \*

1	2	3	4
---	---	---	---

5. Ella autobusera igo da \*

1	2	3	4
---	---	---	---

6. Él lehengusuarekin etorri da \*

1	2	3	4
---	---	---	---

7. Yo kotxetik jaitsi naiz \*

1	2	3	4
---	---	---	---

8. Yo espaloian erori naiz \*

1	2	3	4
---	---	---	---

9. El pintorrek autora igo da \*

1	2	3	4
---	---	---	---

10. Esa señoarak txakurrarekin etorri da \*

1	2	3	4
---	---	---	---

11. Esa enfermerak orain iritsi da \*

1	2	3	4
---	---	---	---

12. La tortugak putzura joan da \*

1	2	3	4
---	---	---	---

14. Ellak lagunarekin etorri da \*

1	2	3	4
---	---	---	---

15. Yok bizikletatik jaitsi naiz \*

1	2	3	4
---	---	---	---

16. Yok errekan erori naiz \*

1	2	3	4
---	---	---	---

17. Gizon horrek ha comprado un pastel \*

1	2	3	4
---	---	---	---

18. Idazle horrek ha traído el periódico \*

1	2	3	4
---	---	---	---

19. Tabernari horrek ha vendido varios bocadillos \*

1	2	3	4
---	---	---	---

20. Sukaldari horrek ha preparado postres muy ricos \*

1	2	3	4
---	---	---	---

21. Berak ha comprado varias camisetas \*

1	2	3	4
---	---	---	---

22. Berak ha traído algunas maletas \*

1	2	3	4
---	---	---	---

23. Nik he terminado los ejercicios \*

1	2	3	4
---	---	---	---

24. Nik he comido algo picante \*

1	2	3	4
---	---	---	---

25. Ese hombrek pastel bat erosi du \*

1	2	3	4
---	---	---	---

27. Ese camarerok bokadillo asko saldu ditu \*

1	2	3	4
---	---	---	---

26. Ese escritorrek egunkaria ekarri du \*

1	2	3	4
---	---	---	---

30. Ellak maleta batzuk ekarri ditu \*

1	2	3	4
---	---	---	---

28. Esa cocinerak postre oso gozoak prestatu ditu \*

1	2	3	4
---	---	---	---

29. Ellak hainbat kamiseta erosi ditu \*

1	2	3	4
---	---	---	---

31. Yok ariketak bukatu ditut \*

1	2	3	4
---	---	---	---

32. Yok zerbait pikantea jan dut \*

1	2	3	4
---	---	---	---

33. Ese hombre pastel bat erosi du \*

1	2	3	4
---	---	---	---

34. Ese escritor egunkaria ekarri du \*

1	2	3	4
---	---	---	---

35. Ese camarero bokadillo asko saldu ditu \*

1	2	3	4
---	---	---	---

36. Esa cocinera postre oso gozoak prestatu ditu \*

1	2	3	4
---	---	---	---

37. Ella hainbat kamiseta erosi ditu \*

1	2	3	4
---	---	---	---

38. Él maleta batzuk ekarri ditu \*

1	2	3	4
---	---	---	---

39. Yo ariketak bukatu ditut \*

1	2	3	4
---	---	---	---

40. Yo zerbait pikantea jan dut \*

1	2	3	4
---	---	---	---

41. Kirolari horrek ha subido al podium \*

1	2	3	4
---	---	---	---

45. Berak ha subido al autobús \*

1	2	3	4
---	---	---	---

46. Berak ha venido con el primo \*

1	2	3	4
---	---	---	---

42. Mutil honek ha venido con nosotros \*

1	2	3	4
---	---	---	---

43. Idazle horrek ha llegado tarde \*

1	2	3	4
---	---	---	---

44. Txakur horrek ha ido al parke \*

1	2	3	4
---	---	---	---



51. Ikasle hau ha vendido los exámenes \*

1	2	3	4
---	---	---	---

52. Neska hau ha terminado el ejercicio \*

1	2	3	4
---	---	---	---

53. Bera ha comprado varias camisetas \*

1	2	3	4
---	---	---	---

47. Nik he bajado del coche \*

1	2	3	4
---	---	---	---

55. Ni he terminado los ejercicios \*

1	2	3	4
---	---	---	---

48. Nik me he caído en la acera \*

1	2	3	4
---	---	---	---

49. Emazte hori ha comprado un coche \*

1	2	3	4
---	---	---	---

50. Ume hori ha traído un caramelo \*

1	2	3	4
---	---	---	---

54. Bera ha traído algunas maletas \*

1	2	3	4
---	---	---	---

56. Ni he comido algo picante \*

1	2	3	4
---	---	---	---

57. Kirolari hori ha subido al podium \*

1	2	3	4
---	---	---	---

58. Mutil hau ha venido con nosotros \*

1	2	3	4
---	---	---	---

59. Idazle hori ha llegado tarde \*

1	2	3	4
---	---	---	---

60. Txakur hori ha ido al parke \*

1	2	3	4
---	---	---	---

61. Bera ha subido al autobús \*

1	2	3	4
---	---	---	---

62. Bera ha venido con el primo \*

1	2	3	4
---	---	---	---

63. Ni he bajado del coche \*

1	2	3	4
---	---	---	---

64. Ni me he caído en la acera \*

1	2	3	4
---	---	---	---

65. El jilguero ha puesto su nido en el zuhaixka \*

1	2	3	4
---	---	---	---

66. El 22 de diciembre se celebrará el zozketa de Navidad \*

1	2	3	4
---	---	---	---

67. Luis y Ainhoa celebraron el ezkontza de su mejor amigo \*

1	2	3	4
---	---	---	---

68. Haremos una tortilla con el tipula que has traído \*

1	2	3	4
---	---	---	---

69. Le he regalado al vecino la sehaska que ya no utilizamos \*

1	2	3	4
---	---	---	---

70. El pájaro no está contento en la kaiola que le has comprado \*

1	2	3	4
---	---	---	---

71. El pastor arreó al burro con la makila \*

1	2	3	4
---	---	---	---

72. Vimos desde casa la tximista que mató al caballo \*

1	2	3	4
---	---	---	---

73. El cazador apuntó hacia el txoria, pero finalmente no disparó \*

1	2	3	4
---	---	---	---

74. En esta región se halla el basoa donde vivió el monstruo Tártalo \*

1	2	3	4
---	---	---	---

75. La bruja guarda un amuleto en el eskua \*

1	2	3	4
---	---	---	---

76. Los expertos aconsejan el intxaurra para bajar el colesterol \*

1	2	3	4
---	---	---	---

77. Nerea se ha puesto un aro en la sudurra \*

1	2	3	4
---	---	---	---

78. Han vendido la etxea que compraron en el centro del pueblo \*

1	2	3	4
---	---	---	---

79. Nadie se atreve a comer la piperra que queda en el plato \*

1	2	3	4
---	---	---	---

80. Me encanta untar la mantequilla en la ogia del día anterior \*

1	2	3	4
---	---	---	---

81. Te queda muy bien el soineko que te han regalado \*

1	2	3	4
---	---	---	---

82. Hemos encendido la barbacoa con el pospolo que nos quedaba \*

1	2	3	4
---	---	---	---

83. Me gusta mojar el pan en la gorringo del huevo \*

1	2	3	4
---	---	---	---

84. ¡En San Fermín la gerriko no puede ser azul! \*

1	2	3	4
---	---	---	---

85. Para hacer una buena sopa, el berakatz es indispensable \*

1	2	3	4
---	---	---	---

86. Hay malas noticias, según el eskutitz que me mandó Javier. \*

1	2	3	4
---	---	---	---

93. Quiero volar en el hegazkin de esa compañía aérea \*

1	2	3	4
---	---	---	---

87. Sin las gafas, le cuesta pasar el hilo por la jostorratz \*

1	2	3	4
---	---	---	---

95. Mi hermano ha plantado la babarrun en un bote de yogur \*

1	2	3	4
---	---	---	---

88. Jon quiere ir al museo para ver la hiruhortz de Poseidon. \*

1	2	3	4
---	---	---	---

89. La perrita siempre encuentra el jostailu debajo del sofá \*

1	2	3	4
---	---	---	---

90. Todos los de clase quieren firmar en el igeltsu de Ander \*

1	2	3	4
---	---	---	---

91. Será mejor hacer plato único para la otordu del martes. \*

1	2	3	4
---	---	---	---

92. El director puso la zigilu que pedía la junta \*

1	2	3	4
---	---	---	---

94. Acuérdate de arreglar el itogin que tenemos en la cocina \*

1	2	3	4
---	---	---	---

96. Hay un gatito en la eraikin de enfrente \*

1	2	3	4
---	---	---	---

97. ¿Hay que pasar el mendate de Altube para ir a Vitoria? \*

1	2	3	4
---	---	---	---

98. He adornado el balcón con la landare que tenía en la sala \*

1	2	3	4
---	---	---	---

99. Mi abuela se pasa las tardes en la sukalde viendo la tele. \*

1	2	3	4
---	---	---	---

107. El montañero quiere saiatu berriz Everest igotzen \*

1	2	3	4
---	---	---	---

100. Me gusta que me sirvan la kafesne en la terraza. \*

1	2	3	4
---	---	---	---

101. ¡Qué bien se estará en el parque cuando salga el eguzki! \*

1	2	3	4
---	---	---	---

102. Buscan a un técnico para el irrati que sepa chino. \*

1	2	3	4
---	---	---	---

103. Se ha posado una mosca en la gerezi del frutero \*

1	2	3	4
---	---	---	---

104. Siempre se ha dicho que la gosari es muy importante. \*

1	2	3	4
---	---	---	---

105. Los chicos pueden asmatu jolas dibertigarri bat \*

1	2	3	4
---	---	---	---

106. La habitación está apainduta lore urdinekin \*

1	2	3	4
---	---	---	---

108. La crisis actual ha ugaritu lanpostu txarrak \*

1	2	3	4
---	---	---	---

110. Haur txikiak nahi du comer la manzana sin pelar \*

1	2	3	4
---	---	---	---

111. Izara leunak daude puestas en la cama de matrimonio \*

1	2	3	4
---	---	---	---

112. Postariak behar du conocer la dirección de la carta \*

1	2	3	4
---	---	---	---

109. Los clientes hemos onartu bankuaren interes handiak \*

1	2	3	4
---	---	---	---

113. Musikaria ari da componiendo una canción. \*

1	2	3	4
---	---	---	---

114. Harakina hasi da vendiendo carne en el mercado \*

1	2	3	4
---	---	---	---

115. El niño dijo que irakaslea gelara etorri zen. \*

1	2	3	4
---	---	---	---

116. El político confesó que gezurra esan zuen \*

1	2	3	4
---	---	---	---

117. La maestra no entiende que umeak nekatuta daude \*

1	2	3	4
---	---	---	---

118. La abuela cree que bere iloba ez da erruduna \*

1	2	3	4
---	---	---	---

119. El perro vio que nire katua beldurtia da \*

1	2	3	4
---	---	---	---

120. El ingeniero ha dicho eraikina ondo eginda dagoela \*

1	2	3	4
---	---	---	---

121. La madre piensa janari gehiegi egin duela \*

1	2	3	4
---	---	---	---

122. El conductor reconoce errepidean azkarregi joan dela \*

1	2	3	4
---	---	---	---

123. La dueña afirmó arropak Parisen erosi zituela \*

1	2	3	4
---	---	---	---

124. La informática vino internetarekin arazoak zeudelako \*

1	2	3	4
---	---	---	---

125. El gato vio que zure txakurra azkarra da \*

1	2	3	4
---	---	---	---

126. Los jugadores están nekatuta partiduagatik \*

1	2	3	4
---	---	---	---

127. Hay un txoritxu en la ventana \*

1	2	3	4
---	---	---	---



128. Ha venido el mutilzahar del pueblo \*